

Kultura

130 perkusionistak beteko dituzte Zornotzako kaleak, bihar, Euskal Herriko Batukaden Topaketan. > 11



2012an zarratu zen Erralde. 15 udalek 2 milioi euroko zorra hartu zuten beren gain, erabili barik dagoen 87.000 metro koadroko lurragatik. Zorra kitatzen dabilta, baina, zer egin orain lurragaz? > 2-3

Erralde hiltegia: eta orain zer?

Pablo Berasaluzek bere omenezko pilota partiduan jokatu du, hilaren 27an, Berrizen

Berrizko Udalak Pablo Berasaluze pilotaria omen-duko du. Maiatzaren 27an partidu profesionalak jokatu dituzte, eta Berasaluze izango da zuriz jantzi-ko denetako bat. Ibai Zabalagaz osatuko du bikotea. Partiduen artean "sorpresak" prestatu dituzte pilotari berriztarrarentzat, Orland Isoird alkateak aurreratu duenez. Berasaluzek orain 15 urte jokatu zuen azkenekoz Berrizen. Sarrerak gaur eskuratu daitezke udal pilotalekuan, 18:30etik 20:30era. > 18



argia
PERU MAGDALENA

Maiatzaren 26an
eguna, 19:00etan

PERU MAGDALENAren
"Argia" (Elkar)
poesia liburuaren
aurkezpen errezitaldia.
UXUE ALONSO
pianistaren
laguntzagaz

hitz artekalea, 14 durango
946 810 776
liburudenda info@hitzliburudenda.com

#aurkezpena

URTXINTXA
HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK

Andra Maria kalea, 9 DURANGO Tel.: 946 815 017

Berriz > 5

Geu Bek Ezgaitasun Eguna ospatuko du Berrizen, bihar

Durango > 6

Andragunea Lariz Dorrera lekualdatuko dute

Abadiño > 8

Mecánica Mallabiako langileek greba mugagabeari ekin diote

Durangaldea > 4

Eskualdeko garapenez hausnartu gura du Amankomunazgoak

Herririk herri

Erralderen zuloa: 2,6 milioi eta erabili bako 87.000 metro lur

Erralderen likidazioa amaitu berri dute udalek

DURANGALDEA M. O.

Erralde hiltegiak 2012an zarratu zituen ateak, baina proiektu haren ondorio ekonomikoak bizirik daude oraindik. Udalek, lau urteren ostean, oraintxe amaitu dute Erralde enpresaren likidazioa, eta Berrizen hiltegi berria eraikitzeke asmoz erositako lurren zorra guztiz ordaindu barik dago oraindik.

Durangoko hiltegia behin-behinekoa zenez, beste nonbait hiltegi berri bat eraikitzea zen udal bultzatzaileen asmoa, bertako okelaren ekoizpena eta kontsumoa indartzeko. Horretarako, 87.000 metro karratuko lursail bat erosi zuten Berrizen, bankuei 2 milioi euro inguruko mailegua eskatuta. Azpiegiturretan inbertsio handiak ikustera ohituta geunden sasoia zen. Baina, azkenean, egitasmoa pikutara joan zen. Beraz, udalek 2 milioi euro gastatu dituzte, erabili barik eta momentuz funtzio argirik barik dagoen lursailagatik; zuloa egin dute.

Likidazioaren dirua gehituta (baserritarrekin eta hornitzaileekin zituzten zorrak, esaterako), 2,6 milioiko zorra osatzen zen.

Eta orain lurragaz, zer?

Berrizko lurra erositako zegoen, eta proiektua idatzita ere bai. 87.000 metro karratutik 35.000 erabiliko ziren hiltegirako, eta gainerako lurra sektoreko beste enpresa batzuei saltzeko erabili gura zuten. Baina, orain, proiektua etenda dagoela, lehen sektorerako kalifikatutako lur horien etorkizuna ez dago batere argi. Zertarako erabiliko da lur hori? Emango diote erabileraren bat udalek, ala saldu egingo dute? Zelan estaliko dute zuloa?

2
milioi euro gastatu dituzte, funtzio argirik barik dagoen lursail bategatik

Jose Luis Navarro Abadiño, alkatea da Erraldeko likidatzaileetako bat, eta onartu du dirua "ezertarako ere ez" dela gastatu. "Ea erosleren bat agertzen den, eta arineketa batean salduko dugu". Bere esanetan, Abadiñok 765.000 euro ipini ditu guztira Erralden, eta oraindik 114.000 geratzen zaizkio ordaintzeko, Berrizko lurren zorra betetzeko. Ez da soilik Abadiño kasua; Otxandio ere, adibidez, 120.000 euro ipintzeko ditu.

Hiltegi berria?

Durangoko hiltegia zarratu eta gero, abeltzainek Oñatira, Zestoara edota Laudiora joan behar izan dute abelburuak hiltzera. Nekazaritza Elikagaien Behatokiaren azterketa baten arabera, 2012tik 2014ra bitartean, %20 bajatu zen Bizkaiko abelburuen hilketa. Gainera, okela sektorearen eztabaida berriro mahai gainean dago, Eusko Jaurlaritzak estrategia berria martxan ipini gura duelako, bertako okelaren kontsumoa indartzeko. Besteak beste, sektoreekin berbetan hasi da, hiltegien egoera aztertzeko. EHNEk ere egin du ekarpena: "Bertako ekoizpena finkatu gura bada, derrigorrezkoa da hiltegi bat", esan du Alberto Llonak. Bizkaian hiltegia zabaltzeko asmoz, elkarte bat osatu gura du EHNEk, eta hiltegi berria Berrizko lurretan eraikitzea proposatu du.



Erralde hiltegiaren aldeko manifestazioak egin zituzten bultzatzaileek eta herritarrek 2012an.



Erralde hiltegiaren aldeko manifestazioak egin zituzten bultzatzaileek eta herritarrek 2012an.

UDALEK BEREN GAIN HARTUTAKO ZORRA (€)

ABADIÑO	570.000 (%21)
ATXONDO	175.000 (%6,7)
BERRIZ	420.000 (%16)
ELORRIO	175.000 (%6,7)
GARAI	76.000 (%3)
IZURTZA	76.000 (%3)
MALLABIA	204.000 (%7,8)
MAÑARIA	110.000 (%4,2)
OTXANDIO	157.000 (%6)
AMOROTO	70.000 (%2,7)
AULESTI	81.000 (%3,1)
EREÑO	58.000 (%2,2)
ISPASTER	128.000 (%5)
MENDEXA	64.000 (%2,4)
MUXIKA	233.000 (%9)

Adostasunik bako amaiera baten kronika

2012ko urrian erabaki zuten Erralde desagitea

Adostasun faltak zipriztindutako amaiera baten kronika izan zen Erralderena. 2012ko urtarrilaren 13an itxi zen Durangoko hiltegia, Eusko Jaurlaritzaren aginduz. Laneko funtzionamendua U estilistik lerroa pasatzea exijitzen zen, baina instalazioak ez ziren egokiak horretarako. Horrez gainera, gogoratu behar da Aramotzeko auzokideak ere ez zeudela hiltegiagaz gustura. Zabalik zegoen Bizkaiko azken hiltegia zen Durangokoa.

Durangokoa itxita, egitasmoaren bultzatzaileek Berrizko hiltegi berrian ipini zuten begirada. Eraikitzeko 7,5 milioiko inbertsioa aurreikusi

zuten, eta %60 soilik segurtatu zuten; Erralde elkarte osatzen zuten udalek diruaren %20 ipintzea onartu zuten, eta Eusko Jaurlaritzak %40 ematea hitz eman zuen. Esperantzak hile gutxitan zapuztu ziren, eta adostasun politiko falta agerian geratu zen. Bilduk gobernatutako udalek eta Garaikoak birkapitalizazioa egin nahi zuten, eta EAJk gobernatutakoek eta Abadiñoak enpresa likidatzea. Birkapitalizazioaren aldekoak gehiago ziren, eta Erralden beste udal batzuk sartzeko saiakera egin zuten. Ez zuten lortu, eta urrian, aho batez erabaki zuten elkarte desagitea.

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta
Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa:
946 232 523

Publizitatea:
946 217 902
publi@anboto.org

2016ko maiatzaren 13a
14. urtea - 632. alea

Zuzendaria:
Jone Guenetxea Arrinda.
Administrazio burua:
Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa:
Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea:
Itxaso Martinez de
Arenaza Yarza eta Nagore
Txintxurreta Isasi.
Erredakzioa:
Aitziber Basauri Gandiaga,
Itsaso Esteban Urtiaga,
Joseba Derteano Bilbao,
Markel Onaindia Txabarri,
Maialen Zuazubiskar
Gallastegi eta Paul
Bustindui Revuelta.
Maketazioa:
Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea:
Mikel Azkarraga Etxegibel.

Laguntzaileak:



"Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua"



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du





Juan Gallastegi Zaldibar
Harakina

“Gastuak handitu egin zaizkigu. Behiak Oñatira eramateak garraioa garestitzen du”

Juan Gallastegik harategi bi ditu Durangaldean: Durangon eta Zaldibarrren. Harategi hauetako okela bere familiak duen ustiapenean ekoiztutakoa da. Bere senide batek 1955ean Zaldibarren sortutako harategia izan zen gaur egungo familia-enpresaren abiapuntua.

Iritzi oso kritikoa izan zenuen bere momentuan Erralderen proiektuagaz. Zergatik?

Kudeaketa txarra egin zelako izan nintzen kritikoa. Harakin batzuek lortu genuen zabaltzea. Ondoren, kudeaketa txarraren eraginez, zulo ekonomiko handia egin zen. Nire ustez, mankomunatua beharrean kooperatiba moduan sortuz gero, geuk ere iritzia emateko aukera izango genuke. Ostera, diru publikoagaz hasiz gero, Erraldegaz bezala

gertatu daiteke, 2,6 milioi euroko zuloa sortu zen.


Orain non hiltzen dituzue zuen behiak? Gipuzkoan hiru hiltegi daude, eta hara eramaten ditugu. Bizkaian hiltegi bat izatea oso ona izango litzateke guztiontzat.

Non egon daiteke irtenbidea?

Kooperatiba bat sortzea izan daiteke irtenbideetariko bat. Zati bat Jaurleri-tzatik kreditu bat interes baxuagaz edo horrelako zerbait eskuratuta lortu daitekeela esango nuke. Ni ez naiz ekonomialaria, harakina naiz. Hala ere, uste dut badaudela antzerako proiektuak, eta ondo egindako gauzak kopia egin daitezke.

Erralderen itxierak zein eragin izan du Durangaldean lehen sektorean?

Ez dut uste ekoizlerik desagertu denik. Egia da, baina, orain gastuak handitu egin zaizkigula. Behiak Oñatira eramateak garraioa garestitu egiten du. Zestoara edo Laudiora ere eraman daitezke. Leku batetik edo beste batetik eramanda, garestiagoa izan daiteke, jakina. Bilbo ingurukoak Santanderre-ra edo Laudiora eraman behar izaten dituzte. Laudiokoa, esate baterako, Oñatikoaren aldean garestiagoa da, gainera.



Aitor Biritxinaga Berriz
Esne-behien ustiategia dauka

“Interesgarria litzateke hiltegi berri bat egitea, aberastasuna emango lioke inguruari”

Durangaldeko ustiapen handienetarikoa dauka Aitor Biritxinaga berriztarak. Esne ekoizpenean egiten du lan, eta beraz, hiltegi faltaren eragina beste ikuspegi batetik dakar. Hiltegi berri baten beharra ikusten du, baina sektore handizkarien partaidetzagaz.

Erralde itxi zenetik, zelan eragin ditu inguruan hiltegirik ez edukitzeak?

Gu esne-behiekin gabilta beharrean, eta horregatik, ez da berdina. Baina, igarri dugu zerbait. Erralde zarratu aurretik, jendeak txahalak erosten zizkigun, eurenak hil eta gero. Baina, aspaldi honetan, oso gutxi saldu dugu. Behera-kada hori hiltegia itxi izanagatik etorri dela uste dugu.

Eta behiak hiltzeko, zelan moldatu zaret?

Zestoako hiltegitira eramaten ditugu. Erralde itxi aurretik ere hara eramaten hasi ginen; bitartekaria jubilatzen, eta hartu genuen berriak Zestoara eramaten zituen. Beraz, zuzen-zuzenean ez digu eragin. Hala ere, interesgarria izango litzateke hemen hiltegi berri bat egitea, aberastasuna emango lioke inguruari. Hori bai, handizkariak ere sartu ahal izatea beharrezko ikusten dut. Izan ere, guk behi helduak eramaten ditugu, eta hemen okela horren kontsumorik ez dago apenas. Txuleta eta hemen gertatzen dira, baina hegalak, adibidez, Alemaniara eramaten dituzte. Gure okela asko Europan gora joaten da.

Hiltegi berri bat eraikitzeak ez dirudi gauza erraza, eta Erralderen aurrekaria hor dago...

Lehen egin behar zen hiltegia, hainbesteko zuloa [ekonomikoa] egiten utzi aurretik. Kanpotik ikusita, gaia lar luzatzen utzi zen, eta ez dakit zergatik; proiektua mugitzen ibili zirenei galde-tu beharko litzaike hori. Nire ustez, eskualdean hiltegi bat zabaltzea interesgarria izango litzateke. Ez zegoen egundoko hiltegi bat eraiki beharrik; nahikoa zen Durangon zegoen antzeko bat, txiki bat, egun dagoen beharritzana aztertu, eta gerora hazteko aukera utzita.

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

Ate irekiak

maiatzak 21 (larunbata) 11:00

Eskaintza akademikoa

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industrial
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrial

www.mondragon.edu/gmh
gmh.mgep@mondragon.edu

943 71 21 91

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

2016-2017

www.mondragon.edu/gmh



Durangaldeko garapenari buruz hausnarketa egiteko gonbita

Amankomunazgoak hausnarketa piztu gura du ekainaren 7ko jardunaldiagaz



Aitor Lopez presidentea, erdian, Amankomunazgoa teknikaekin batera.

DURANGALDEA M. O. Amankomunazgoak lurralde garapenari buruz hausnartzeko jardunaldi bat antolatu du, eta eskualdeko eragile zein herritar guztiak gonbidatu ditu bertan parte hartzera. Kanpoko eredu teoriko eta praktikoak entzunez, Durangaldeko sozioekonomikoki beharko lukeen antolaketaz gogoeta piztea da jardunaldiaren helburua. Ekainaren 7an izango da, Durangoko

Plateruenean, *Oinak lurrean* le-mapean. Izena eman gura dutenek 94 623 25 22 telefonora deitu dezakete.

Requejo eta Cuchi

Jardunaldira aditu garrantzitsuak etorriko direla azaldu zuen Aitor Lopez presidentek eguaztenean burututako aurkezpenean. Nazioartean hirigintza arloan lan egin izan duten Juan Requejo eta Albert

Cuchik berba egingo dute, besteak beste. Horrez gainera, Sakanako (Nafarroa) eta Urduñako garapen ereduak ezagutu ahaliko dira; industrial lehena, eta lehen sektorekoa bigarrena.

Lurralde antolaketarako planak udaletan, Aldundian eta Jaurlaritzan zehazten dira, eta horien garapenerako baliagarri izan gura du Amankomunazgoak piztuko duen hausnarketak.

Nafar kontserbak eskura, Errigora ekimenagaz

DURANGALDEA M. O.

Errigora ekimenak kanpaina berria martxan dauka, kontserbekin lotutakoa hain zuzen ere. Nafarroa hegoaldeko produktuak auzolanean zabaltzen dituzte Euskal Herri osoan, hango ekoizleei eta euskalgintzari laguntzeko asmoz. Maiatzaren 24an amaituko

den kanpaina honetan, hainbat kontserba eskuratu ahaliko dira: piperrak, potxak, zainzuriak, orburuak, kremak...

Dagoeneko hasi dira herririk herri antolatzen, eta kontserbak etxean jaso gura dituenak ohiko lekuetan egin dezake eskaera. www.errigora.eus webgunean ere egin ahal du eskaera, eta bertan zehaztu zein lekutan jaso gura duen. Zornotzan, bestalde, zornotza@errigora.eus helbidera idatzita ere eskatu ahal dela iragarri dute antolatzaileek.

Durangaldeko parroketako erreferenteen aurkezpena

DURANGALDEA J. G.

Tabira Eleiz Eskualdean, abadeak urritu direla eta, prestaketa xume bati ekin zioten pasaden zapatuan, Pentekoste bez-

peran, Durangoko Andra Mari-ko basilikan. Otoitzaldi batean Parrokietako erreferenteak nortzuk izango diren ezagutzera eman zuten.



Durangaldeko parroketako erreferenteak eta abadeak, joan zen zapatuan.

Bertan behera utzitako zoruei dagokien plana onartu dute

Aldundiak onartu beharko du dokumentua

IZURTZA J. D.

Iaz Hiri Antolamendurako Plan Orokorra onartu zuen udalbatzarra. Behin betiko onarpena Bizkaiko Foru Aldundiak eman behar zion. Onartu zuen, eta indarrean sartu zen, baina Aldundiak, aldi berean, Planak jasotako gune batzuk bertan behera utzi zituen. Elizalde au-

zoan daude gune horiek. Aldundiak zioen, legeak jasotzen dituen baldintzak kontuan hartuta, Planak ez zuela nahikoa justifikatzen zoru horiek hiri-lur mantentzea. Harrezkero, gune horretarako plana lantzen aritu da udala. Dokumentu berria astearte honetako udalbatzarrean onartu dute, gune

horietako auzotar batzuek aurkeztutako alegazio batzuk partzialki gehituta. Gune batzuk hiri-lur lez mantendu —hau da, bertan eraiki egin daiteke— eta beste batzuk landa-lurzorura aldatu dituzte. Agiriari Aldundiak eman beharko dio azken baietza.

EAJ abstenitu egin zen bozketan. Jeltzaleek uste dute Gobernu Taldeak gehiago egin zezakeela gune denak hiri-lur lez izendatuta geratu zitezen. EH Bilduren esanetan, denak hiri-lur mantentzea zen lehen proposamena, baina Aldundia izan zen hori atzera bota zuena.



Martitzeneko udalbatzarrean egindako bozketak.

katerin ardoak
inaki uribe

saltsan

Eguneko menuak - Asteburueta menu bereziak
Delicatessena - Ardotegia

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com

GAER 

DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

Berdintasunean oinarritutako Ezgaitasun Eguna, zapatuan

Geu Be elkartek Berrizen antolatuko du Ezgaitasun Eguna



Martitzenean aurkeztu zuten Ezgaitasun Eguna Berrizen .

BERRIZ M. Zuazubiskar Berrizko Udalaren laguntzagaz, Geu Be, Once, Rio de Oro eta Asebi elkaratek Durangaldeko Ezgaitasun Eguna antolatu dute maiatzaren 21erako. Zapatuan,

Berrizko beste hainbat elkar-teren laguntzagaz, jai handi bat egingo dutela adierazi dute Saioa Ortiz eta Lorea Celayeta Geu Beko kideek. Berrizen lehen aldiz egingo

den jai honek egitarau zabala izango du, eta herriko hainbat elkartek beraien ikuskizunak eskaintzeko aukera izango dute. Orland Isoird Berrizko alkatearen hitzetan, “herriarentzat ekimen garrantzitsua da, eta oso pozgarria da herriko hainbat taldek beraien aletxoa jarri gura izatea”. Geu Beko kideek gaineratu dute, euren iritzian, zapatuko Ezgaitasun Eguna oso egun aproposa izango dela berdintasunean eta errespetuan oinarritutako harremanak izateko herritarrekin.

Egun osoko jaia

Ezgaitasun Egunean herri bazkaria egingo dute frontoian, 14:30ean, eta partaidetza handia egotea espero dute antolatzaileek. Horren aurretik, txikientzako jolasak eta Berrizko taldeen ikuskizunak antolatu dituzte. Arratsalderako, berriz, postre lehiaketa, bertso saioa, Sei Urte taldearen kontzertu akustikoa, txanda lasterketa, dantza tailerra, DJa eta taberna ibiltaria antolatu dituzte.

Euskotrenek ez ditu tarifak aldatu oraindik

Berrizek eta Zaldibarrek 5. gunean jarraitzen dute



Apirilaren 15ean protesta egin zuten Berrizen.

Berrizen XXII. Umeen Euskal Jaia ospatuko dute domekan

BERRIZ M. Z. 10 urteren ostean, berriro ere Umeen Euskal Jaia egingo dute Berrizko kaleetan zehar, domeka honetan. Ireminiñe eta San Lorentzo Dantza Taldeek, udalaren la-

guntzagaz, XXII. Umeen Euskal Jaia antolatu dute maiatzaren 22rako. Domekan, hamahiru taldetako 300 bat umek Berrizko kaleak alaituko dituzte euren dantza saioekin. 11:00etan, Berrizen bilduko diren hamaika taldeei harrera egingo diete, eta 11:30ean, kalejiran irtengo dira herriko kaleetatik. Kalejiraren ostean, 13:30 inguruan, talde guztiak frontoian elkartuko dira. Gero, umeak bazkaltzera joango dira herriko

etxe, taberna eta elkarreetara. Bestalde, 14:00etan, herriko tabernetatik zehar trikipoteoa egongo da trikitilariak lagun-duta. Arratsaldean, berriz, 16:30ean, ume guztiak frontoian batu, eta 17:00etan alardeari ekingo diote. Eguneko azken dantza saioa Olakuetako plazan egitea aurreikusita duten arren, euria egiten badu kiroldegian egingo dutela esan dute Umeen Euskal Jaiko antolatzaileek.

Eskolako fatxadari estalki berria energia aurrezteko

Fatxada egitura aireztatu batez estali, eta leihoak aldatuko dituzte energetikoki efizienteago egiteko

OTXANDIO Joseba Derteano Efizientzia energetikoa hobetzeko helburuz, hainbat lan burutuko dituzte Otxandioko eskolan. Lanak uztailean hasia aurreikusten dute, irail hasieran amaituta egon daitezen. Azken udalbatzarrean aho batez onartu zuten proiektua. Lanen barruan, Mainondon dagoen eskolari estalki berezi bat jarriko diote energetikoki eraginkorragoa izan dadin, eta leihoak ere aldatuko dituzte. Lan horietan adituak diren enpresei euren proposamenak bidaltzeko gonbita egingo die udalak. Maiatz amaieran eskaintza denak aztertzea eta ekain hasieran lanak esleitzea da asmoa, hil horren amaieran edo uztail hasieran lanean hasi daitezen. Udalak 194.000 euroko diru atala gorde du proiektua gauzatzeko. Kopuru horren barruan aurkeztu beharko dituzte eskaintzak. Hala ere, Urtzi Armendariz alkateak zehaztu

zuenez, “ez gabilta derrigor proposamen merkeenaren bila, eskaintza onenaren bila baizik”. Horrela, proiektuan jasotakoaz gainera, gehitutako hobe-kuntzak (ateak aldatzea, inguruko hormak konpontzea...) oso aintzat hartuko dituzte lanak nori esleitu erabakitzerako orduan: “Horrelako hobe-kuntzak prezioa jaitea baino gehiago baloratuko ditugu”. Horrekin batera, “epekin oso zorrotzak” izango dira, klaseak hasten direnerako dena amaituta egon dadin. **Diseinua eskolak** Eskolako fatxadako estalki berria zelan pertsonalizatu (pintura kolorean, eskolaren logoa...) erabakitzerako orduan, prozesu “ahalik eta parte-hartzaileena” izaten saiatu dira. Horregatik, eskolakoei iritzia eskatu eta diseinua erabakitzeko aukera eskaini diete. Eskolako arduradunak bide horretan lanean dabiltzala azaldu dute.

15 eskolako 600 bat gazte batuko dituzte orientazio probek

OTXANDIO J.D Otxandioko eskolak orientazio topaketen 9. aldia antolatu-ko du datorren astean zehar. Guztira, 15 ikastetxetako bosgarren eta seigarren mailetan ikasten duten 600 bat gazte batuko dira hiru egunetan. Maiatzaren 23an Abadiño, Otxandio, Izarra eta Orozkoko eskola banatako ikasleak etorriko dira; maiatzaren 25ean Lemoa, Artea, Zeanuri, Zaldibar, Areatza eta Bilbokoak, eta maiatzaren 27an Aramaio, Legutio, Dima, Gasteiz eta Igorrekoak.

Mapa hartu eta basora Hiru egunetan proba berdinak errepikatuko dituzte. Goizetan, mapa bat hartu eta ikasleek eskola atzeko basoan orientatu beharko dute lau ibilbide desberdinetan. Bikoteka ibiliko dira. Bazkalostean herrigunean zehar ibiliko dira. Aniztasun funtzionala dutenentzat proba bereziak izango dira.

Egoitz Garmendia otxandiarrek kartzela saihestuko du

OTXANDIO J.D 8/2013 sumarioaren barruan, Ekineko kide izatea egotzitako bederatzi lagunak kontrako epaiketa egin zen martitzenean Espainiako Auzitegi Nazionalan. Horietako bat Egoitz Garmendia zen. Aldeen arteko akordioa egon da. Garmendia-

2010ean atxilotu zuten. Urte bi kartzelan eman, eta 12.000 euroko fidantza ordainduta irten zen

ri urte biko kartzela zigorra jarriko diote, baina aurretik urte biko kartzelan egonda dagoenez, ez da itzuliko. Garmendia 2010ean atxilotu zuen Guardia Zibila. Urte bi eman zituen kartzelan. 12.000 euroko fidantza bat ordainduta geratu zen aske. Fiskalak 9 urteko kartzela zigorra eskatzen zituen berarentzat.

Presoen behar ekonomikoei laguntzeko enkantea, 27an

ATXONDO J.Derteano Herriar talde bat 'Amnistiaren bidean, elkartasun ostirala' antolatzen ari da maiatzaren 27rako. Ekimen horren helburua presoek dituzten gastu ekonomikoei aurre egiteko (abokatuak, dispertsioak eragindako gastuak...) diru-bilketa egitea eta kartzeletako egoera salatzeari buruzko enkantea, 27an.

Hilaren 27an, 19:00etan, askotariko ekintzak egongo dira plazan. Mus txapelketa, jan-edana eta enkantea, besteak beste. Aldarrikapena eta jaia uztartuko dituzte.

Enkante horretara aterako dituzten gauzakiak herritarrek emandakoak izango dira. Gaur, 18:00etatik 20:00etara, herriko plazan egongo dira eta materiala bertara eramane daiteke: altzairuak, mendiko zein hondartzako materiala, apaingarriak...

Era berean, astean zehar hainbat ekintza egingo dituzte ostiralera begira giroa bertatzeko. Esaterako mural bat marraztuko dute herrian.

Lantziegoko lagunengana doaz garaitarrak

GARAI M.O.

40 bat garaitar Lantziegora (Araba) joango dira bihar, hango lagunekin egunpasa egiteko asmoz. Herri bien arteko hartuemana pare bat hamar kada atzetik dator, dantza taldeen trukeengatik sortuta, eta 2013an senidetza hitzarmena sinatu zuten alkateek.

Bihar 09:30ean irtengo dira Garaitik autobusean, eta Lantziegoko bazkaria eta erromeria prestatuko dituzte ospakizunerako.



Orain arte Turismo Bulegoa eta Durango Eraikitzen egon dira Lariz Torren.

Andraguneak etapa berri bat hasiko du Lariz Torren

“Andraguneak espazio egokiago bat edukitzea” beharrezko ikusi dute

DURANGO Markel Onaindia 2009an, feministen eskariari erantzunez zabaldu zenetik, indarra hartzen joan da Andragunea. Aurten, 325 emakume dabilta Jabekuntza Eskolako ikastaroetan. Aitziber Irigoras alkateak adierazi du “Andraguneak espazio egokiago bat edukitzea” beharrezko ikusten zutela, eta, horregatik, Lariz Torreraren lekualdatuko dutela. Gainera, feministen hasierako eskakizun bat beteko da ondorioz: Andraguneak espazio indepen-

dentea edukitzea, erreferentzia indartzeko. Modu horretan, etapa berri bat hasiko du.

Turismo bulegoa Kurutzesantu museora eramango dute, eta, horrela, museoa zabalik egotea ahalbidetuko da. Durango Eraikitzen erakunde autonomoagaz zer egin da zalantzan dagoena, Lariz Torren dago eta. Irigorasen esan du espazioen inguruko hausnarketa bat garatzen dabilatzala, eta horren baitan erabakiko dela zer egin Durango Eraikitzenegaz. Pi-

nondo Etxean libre geratzen den espazioagaz ere, berdin.

Aurkezpenera ez

Aldaketa EH Bildugaz adostuta egin dute, eta Berdintasun Kontseiluan erabaki da. Aurkezpenera ez zen joan koalizioa: “Ez zaigu ondo iruditzen kontseiluaren aldarrikapen hau alderdi batzuen propaganda hutserako erabiltzea”. Riosek esan du kontseilukoak gonbidatuta zeudela, baina ordutegiagatik ezin izan zirela bertaratu.

Frailek ez du minbizia, emaitzen arabera

Dena den, sendatu den jakiterik ez dagoela diote

DURANGO A.B. / M.O.

“Azterketako emaitzek diote ondo dagoela, ez duela minbizirik. Zelula txar guztiak kendu zizkietela ematen du”. Gorka Fraile presoaren lehengusinarren berbak dira, joan zen bari-

kuan emaitzak jakin eta gero esandakoak. Hala ere, sendatu den jakiterik ez dutela esan du: “Halakoetan, bost urte igaro behar dira alta hartzeko. Gainera, behin minbizia izanez gero, errazagoa da berriz sortzea, are

eta gehiago espetxeko bizi-baldintzekin”.

Badajozeko (Extremadura, Espainia) kartzelan dago Fraile, eta “ez diote behar duen jarraipena egiten”, lehengusinarren esanetan. Horregatik, lanean jarraituko dute etxeratu dezaten. “Badajozeko ospitalean ez dute ondo tratatu, eta espetxeko baldintzak ez dira aldatu. Egoera berdina da. Hori dela-eta, etxera ekarri dezaten, lanean jarraituko dugu”. Iaz egin zioten ebakuntza minbizia sendatzeko.

Mariano Rajoy Durangora etorriko da bihar

DURANGO M.O.

Mariano Rajoy Espainiako behin-behineko presidentea Durangora etorriko da bihar, PPk antolatutako jardunaldi batean parte hartuz. Hain zuzen ere, Euskal Herriko egoera politikoaz eta iraganaz berba egiteko konferentzia izango da, eta horren baitan, Jesus Mari Pedrosaren omenez (ETak 2000. urtean hil zuen zinegotzi durangarra) ematen duten saria ere eskainiko dute.

Aurten, PP alderdiko euskal zinegotziei emango diete errekonozimendua, “askatasunaren alde eta terrorismoaren aurka urtetan egindako lanagatik”.

Andaluziako Azoka hartuko du asteburuan Landako Guneak

DURANGO M.O.

Durango andaluziarren zentro kulturalak antolatuta, Andaluziako Azoka hartuko du asteburuan Landako Guneak. Dantzagaz, musikagaz eta gastronomiagaz gozatzeko aukera eskainiko dute bihar eta etzi, egun osoko egitarauarekin. Bihar zabalduko dute azoka, 12:00etan.

Askotariko ekintzak iragarri dituzte antolatzaileek. Esate baterako, bihar Andaluziako jantzien lehiaketa egingo dute, 17:00etan. 18:00etan dantza erakustaldia egongo da, eta 20:30etik aurrera afaria eta jaia.

Domekan, 11:30ean, Rocío estiloko meza egingo dute abesbatza eta guzti. Meza-oren ostean, zentro kulturalako kideek kultur erakustaldia emango dute. Jaialdiak 20:30ak arte jarraituko du, Landako Gunean.

MAIATZEKO SARIAK

Anbotoren lagunak

www.anboto.org
lagunak@anboto.org
Tel.: 946 816 558



SALTSAN KATERIN. MENUA
Bi lagunendako aste bitarteko menua.



IBILALDIA 2016. ARROPA
· Txaketa
· Izerditakoa
· Kamiseta



OPEN KLUB. BONOIA
10 emanaldiko bonua instalazioa nahierara erabiltzeko eta, gainera, nahi adina klase gidatu egiteko aukera.



HITZ LIBURU-DENDA. LIBURUA ETA CDa
Mohamed Xukriren “Hutsegiteen garaia” liburua eta Eskean Kristö taldearen “Eskean Kristö” CDa.



URBASA ABENTURA. MULTIABENTURA
Multiabentura Ibilbidea Familian, 4 pertsonentzako.



ABANTAILAK

- > Deskontuak Durangaldeko zein eskualdez kanpoko hainbat saltokitan.
- > Deskontuak Anboton argitaratzen diren iragarki labor ordainduetan eta eskeletan.
- > Hilero egingo diren zozketetan parte hartzea.
- > Durangaldeko egutegia eta turismo-gida opari.



Aitziber Zearreta, Nagore Urikena, Isabel de Blas eta Mireia Delgado.

Ehunka eragile morek gune libre, anitz eta ez sexista aldarrikatuko dute

Eraso sexisten kontrako prebentzioa eta aldarrikapena landuko ditu Ibilaldiak

DURANGO J.G.

Parekidetasuna zeharlerro moduan landu dute Ibilaldian, eta, horretarako, lau pertsonako lan-taldea sortu dute. Ibilaldian parte hartzen duten taldeetan eragina izaten saiatu dira: “Tal-de askotan aliatuak izan ditugu. Hasieratik esan genuen guk ez genuela lan guztia gainbegiratu-ko. Irizpide batzuk mahai gainean jarri, eta betaurreko more horiek ipinita bakoitza autonomo izatea izan da helburua”, azaldu du Aitziber Zearretak.

Eragile moreen funtzioa

Ibilaldi honetako nobedadeetako bat eragile morearen figura da. Eragile morea agente bat da, prebentzio agente bat. Alde batetik, egoera hauetan eman dai-

tezkeen erasoak ekiditea izango du helburu. Zaintza funtzioa izango du, gunea behatu behar-ko du gertatu litezkeen erasoak prebenitzeko. Beste funtzioa aldarrikapenarena izango litzateke. “Gune ez sexista, anitza eta libre gura dugu, eta hori peto more baten bidez gorpuztea da gure asmoa”, azaldu du Isabel de Blasek. Ibilaldiaren paisaian erasoaren kontrako mezua islatuko duen peto morea nahinon izango da presente. Edonor izan daiteke eragile morea. “Hau ez da kontzientziatuta dauden lau pertsonen egin beharreko lana. Jendartearen eta kolektiboaren lana da. Ardura kolektiboarena da. 300 peto jarri ditugu, eta pegatinak ere jarriko ditugu. Helarazi gura dugun mezua da guk

denok egin beharreko lana dela hau, denon ardura delako. Gure espazioan ez dugula erasorik onartu behar, horixe da zabaldu gura dugun mezua”, dio Mireia Delgadok. Lan-taldeko kideen berbetan, jendeak aldarrikapen hau bere egitea gura dute. “Gazteek, helduek, emakumeek, gizonak, durangarrek, beste herri batzuetakoek...”.

Ekimenak erantzun ona izan duela nabarmendu dute Ibilaldiko kideek. Atzo, gai honen inguruan formazio saio bat eskaini zuten.

Ekimen honek jarraipena izatea da lan-talde honen asmoa. “Aurrera begira, ikastolen hurrengo jaietako antolatzaileei gure ilusioa eta esperientzia helaraztea dugu helburu”.

Udalekuetan izena eman daiteke ekainaren 10era arte

MALLABIA M.O.

4 eta 14 urte arteko ume eta gazteek Mallabiko udalekuetan parte hartzeko aukera izango dute. Ekainaren 27tik uztailaren 15era izango dira udalekuak. Izena emateko interesa dutenek dagozkien orriak eskolan, udaletxean eta Kultur Etxean eskuratu ditzakete. Guztira, 50 plaza eskainiko dituzte.

Antolatzaileek azaldu dutenez, izena emateko lehentasuna herriko umeek izango dute. Udalekuen ordutegia astelehenetik ostiralera 09:30etik 13:00etara izango da.

Udalekuek irauten duten hiru asteetan umeek hainbat ekintzatan parte hartzeko aukera izango dute. Eguenetan Berrizko igerilekuetara eta

Eguenetan Berrizko igerilekuetara eta Basondora irteerak egingo dituzte

Basondora irteerak aurreikusi dituztela aurreratu du Satxibu elkarteak Maider Gisasolak. Gainerako egunetan Mallabia inguruan ibiliko dira. “Egun bakoitzean gai bat lantzeko asmoa dugu”, dio Gisasolak.

‘Itzuli lurak herriari’ lemagaz kontzentrazioa egingo dute

ZALDIBAR I.E.

Eusko Jaurlaritzak itzuli lurak herriari! lemagaz kontzentrazioa burutuko dute, gaur, 19:00etan, ospitale psikiatrikoaren sarreran. “Aspaldi hitz emandako 3.500 metro koadroko lursaila” udalaren esku utz dezala eskatuko diote Jaurlaritzari mobilizazio horretan.

“Herriarrok ekimena hartzeko ordua” dela uste dute kontzentrazioaren antolatzaileek

Ospitale psikiatriko inguruko lurren zati bat zaldibartarren erabilerarako zabaltzea eskatzeko aurrerantzean zer ekintza burutu adosteko, maiatzaren 6an egin zuten batzarrean erabaki zuten gaurko kontzentrazio hori antolatzea. Parte-hartzaileek azaldu dutenez, 30 bat herritar elkartu ziren liburutegi zaharreko hitzordu horretan, eta jendea mobilizatzea deitzea erabaki zuten. “Ikusita Jaurlaritzak eta udala 2004tik dabilzala lur horien erabilerari bueltak ematen, eta 2011tik herriari zelantze erabaki ezinean, herritarrok ekimena hartzeko ordua” dela uste dute antolatzaileek.

Mecánica Mallabia: enpresa likidazioan eta langileak greban

Maiatzaren 5etik, greba mugagabea daude Mecánica Mallabiako langileak



Abadiñoko lantokiaren aurrean egin dute langileek agerraldia.

ABADIÑO Itsaso Esteban
Maiatzaren 5etik greba mugagabea daude ALFA taldeko Mecánica Mallabia enpresako langileak. Enpresa likidazio prozesuan dago, eta langileek “ahalik eta lanposturik gehien mantentzea, eta dagozkien soldaten eta ordainsarien ordainketa bermatzea” aldarrikatzeko hasi dute greba. Azken asteotan enpresaren ordezkariekin eta erakundeekin izan dituzten negoziazioen berri eman dute, asteon, Abadiñoko lantokiaren sarreran egin duten agerraldian.

CCOO sindikatuaren bi ordezkari, eta ELA, LAB eta UGTko ordezkari banak osatzen

duten enpresa komiteak Konkurtso Administrazioarekin, ALFA taldearen abokatuarekin eta Jauraritzarekin egin dituen batzarren berri eman dute.

Mecánica Mallabia enpresaren itxiera ALFA taldearen “kudeaketa negargarriaren” ondorioa dela azpimarratu dute langileak, eta diote ez daudela prest, enpresaren arduradunek eskatzen dieten bezala, egoera honetan lanean jarraitzeko “likidazioa modu ordenatuan egin ahal izateko eta inbertsore berri bat erakarri ahal izateko”. Kritikatu dute, “200 lanpostu baino gehiagoren galeraren erantzuleak —ALFA taldeko adminis-

trazio batzordekideek— 298.721 euro baino gehiagoko dibidenduak banatu” dituztela euren artean, eta esan dute ez dutela onartuko “lapurreta hau egin dutenak zipriztindu ere egingo ez dituen likidazio prozesu bat”.

Enpresa erosteko interesa agertu bai, baina “langilegoarekiko ezelako konpromisorik hartzeko asmorik ez duten taldeei” ez dietela “alfonbra gorri bat ipiniko” ere esan dute. Izan ere, ALFA taldearen ordezkariekin egin dituzten batzarretan, interesdun horiek gehienez ere 40 lanpostu mantentzeko konpromisoa agertu dutela salatu dute langileak.

Kantu afaria antolatu du Ebalixu taldeak

ELORRIO M.O.

Ebalixu euskararen aldeko taldeak kantu afaria antolatu du datorren barikurako, maiatzaren 27rako. Herriko plazan egingo da ekitaldia, eta bertan parte hartu ahal izateko txartelak Parran eta Portalekuan ipiniko dituzte salgai, 8 eurotan. Bigarren edizioa izango da.

Parte hartu ahal izateko txartelak Parran eta Portalekuan ipiniko dituzte salgai, 8 eurotan

“Iaz afari gozoagaz eta kantu giroagaz gozatzeko aukera eduki genuen, eta errepikatzen ordua heldu zaigu”, esan dute Ebalixuko kideek. 19:00etan ipini dute elkartzeko hitzordua, Parra tabernan.

Erabileraz kezkatuta

Iaz sortu zuten Ebalixu, Elorrioko gazteen artean euskararen erabilera indartzeko helburuz. Izan ere, erabileraren datuekin kezkatuta zeuden lagun horiek; 2013an egin-dako ikerketa bateko datuen arabera, Elorrioko gazteen %94 euskaraz berba egiteko kapaz dira, baina euren arteko elkarriketen %76 gaztelaniaz izaten dira kalean.

Berdintasun arloaz berba egingo dute

ELORRIO M.O.

Berdintasun Plan berria lantzen dabil Elorrioko Udala, eta, norabide horretan, herriko egoera aztertzen ibili da azken hileetan. Arduradunek azaldu dutenez, sektore ugariak 58 lagunekin batu dira, eta, horretaz aparte, inkestak burutu dituzte herritarrekin eta udal beharginekin. Fase hori amaituta, urrats berriak dituzte esku artean: “Informazio asko jaso dugu, eta orain herritarrei hori jakinaraztea eta eurekin kontratatzea nahiko genuke”.

Horrela, datorren asterako, hainbat deialdi egin dituzte. Astelehenean, hilak 23, emakume elkarteak, talde feministak eta interesa duten emakume feministak guztiak gonbidatu dituzte batzarretan, 18:30ean, Iturrin. Martitzenean hezkuntza esparruko kideekin batuko dira lehenik, 13:30ean; arratsaldean, 18:30ean, interesa duten herritar guztiei egin diete deia. Eguenean, osteran, udaleko beharginekin eta kargu politikoekin egingo dute topaketa, informatu dutenez.

Izena emateko

Aipatutako batzarretan parte hartu gura dutenek, 94 658 27 12 telefonora deituta edo *genero.teknikaria@elorrio.eus* helbidera idatzita eman ahal dute izena.

Elorrio eta bere inguruak ezagutu dituzte 11 ikasle alemaniarrek

Lourdesko Ama ikastetxeak truke kulturala landu dute alemaniarrekin

ELORRIO M.O.

Elorrioko Lourdesko Ama ikastetxeak trukaketa kulturala egin dute Alemaniako Golsar hirikoekin, eta, ondorioz, azken astean 11 ikasle alemaniarrek Elorrio eta bere inguruak ezagutu dituzte. Ikastetxeko DBHko 4. mailako ikasleekin egin dute trukaketa.

Ikasleen artean hartuemanak landu eta ikasketa ereduen berri emateaz aparte, bata bes-

tearen kulturak ezagutzea ere bada trukearen helburua, Lourdesko Amako kideek azaldu dutenez. Horrela, Elorrioko auzoetatik ibilbidea burutu zuten

astelehenean, esate baterako. Gernikako juntetxea edota Bilboko Guggenheim eta Zazpikaleak bisitatzeak aukera eduki dute egunotan alemaniarrek.



Ikasle alemaniarrek asteon egindako bisita batean.

LANGABEENTZAKO DOAKO IKASTAROA

BILTEGIKO MAKINAK ETA KARGAK MUGITZEN IKASTEKO PRESTAKUNTZA

KAMIOIAREN GIDABAIMENA ATERATZEKO IKASTAROA

NORENTZAT
Abadiñon, Atxondon, Berrizen, Durangon, Elorrian, Garain, Izurtzan, Mañarian eta Zaldibarren bizi diren langabeentzat.

NOIZ
2016ko ekainean

ORDUTEGIA
Astelehenetik ostiralera, goizez.

TOKIA
Durangaldea Berargintza.

IZENA EMATEKO EPEA
2016ko maiatzaren 25era arte.
prestakuntza.mdurango@bizkaia.org

Durangaldea Berargintza Laubideta, 6 DURANGO Tel.: 946 232 522
Ordutegia: astelehenetik ostiralera 08:00etatik 15:00etara
www.mdurango.org

Pintxorik onena izateko 44 hautagai aurtengoan

Jai Alai txapelketa hilaren 25etik 29ra izango da



Herritarrek euren pintxorik gustukoena bozkatzeko aukera izango dute.

ZORNOTZA J. Derteano
Jan Alai pintxo txapelketak bosgarren aldia egingo du aurten. Aurten 44 taberna edo jatetxek parte hartuko dute. Maiatzaren 25ean 19:00etan hasi, eta hurrengo domekan, 29an, 15:00etan amaituko da txapelketa. Tarteko hiru egunetan goizez zein arratsaldean (12:00-15:30 eta 19:00-22:00) dastatu ahalko dira pintxoak.

Txapelketak ohiko funtzionamendua izango du. Hiru sari banatuko dituzte: epaimahaiak eta herritarrek erabakitako pintxorik onenak (1.000 eurona) eta zerbitzaririk onena. Lehaketa herrikoian parte hartu gura duenak parte-hartzaile

denak batzen dituen txartel bat jaso dezake. Txartel horretan hiru pintxorik onenak eta zerbitzaririk onena zeintzuk diren jarri daiteke. Horretarako, 44 establezimenduak banatuta dauden sei gunetako bakoitzean, hiru pintxo dastatu beharko dira, gutxienez; hau da, taberne txartela zigilatu behar dute. Pintxo bakoitzaren prezioa 1,3 eurokoa izango da. Iritzia ematen duten guztiak 500 euroko sari baten zozketan sartuko dira. Sari banaketa ekitaldia hilaren 29ko domekan egingo dute, 20:00etan, Zelaieta Zentroan. Sariak banatzeaz gainera, 10 pintxorik onenen zerrenda osatuko dute.

Gerra Zibilean hildakoak gogoratzeko ekitaldia, bihar

ZORNOTZA J.Derteano
1937ko maiatzaren 18an tropa frankistak Zornotzan sartu ziren. Aurreko egunetan —maiatzaren 14an eta 16an, zehazki— bonba su-eragileekin bonbardatu zuten herria, suteak eraginez. Data hori eta Gerra Zibilean hildakoak gogoratzeko, ekitaldia egingo dute zapatuan, 12:00etan, Zelaieta parkean, 2010ean jarritako oroimen plakaren inguruan. Zornoza elkarteak, udalaren laguntzagaz, urtero antolatzen duen ekitaldia da. Lander Intxaustik aurkeztuko duen aurtengo aldiak hainbat osagai izango ditu. Musika da horie-

Alaiak eta Zornoza-ko koruek eta Josune Barrueta akordeoilariak parte hartuko dute

tako bat: Alaiak eta Zornoza taldeetako koruek abesti bana kantatuko dute, eta Josune Barrueta akordeoilariak ere beste kantu bi eskainiko ditu. Biharko ekitaldian zehar, Gerra Zibileko gudari batek lore eskaintza egingo du, eta Andoni Agirrebeitia Zornotza-ko alkateak ere berba batzuk esango ditu.

Azoka eginez amaituko dute aste kulturala

MAÑARIA M.O.
Mañarian aste kulturean murgilduta daude, eta domekan emango diote amaiera XXI. Artisau, Elikadura eta Landare Azokagaz. Gainera, ahuntz azpigorrien monografikoa ere egongo da ikusgai. 10:00etatik 14:00etara izango da ekitaldia, plazan. Gaur, kantu-potea eta bertso afaria edukiko dituzte 19:30etik aurrera. Bihar arratsaldean plater-tiroketa lehiaketaren txanda izango da, eta 19:00etan kontzertua eskainiko dute basilikan.

Autodefentsa ikastaroa izango da, eguenean

IURRETA A.B.
Durangaldeko Berbalagunek oinarritzko autodefentsa ikastaroa antolatu du datorren egunerako, maiatzaren 26rako. Ibarretxe kultur etxean izango da ikastaroa, 17:45etik 19:45era bitartean. Xabi Pajaresek gidatuko du ikastaroa, eta lekua mugatua izango da, azaldu dutenez. Izena emateko honako telefono zenbakira deitu daiteke edo whatsapp bidali: 639 400 786.

SEI HANKAKO MAHAIA

FRAN GARATE
PP



Durango 2016ko aurrekontuak

Alderdi Popularrean uste osoa dugu erantzukizunez jokatu dugula, bidea eman diogulako aurreko abenduan aurkeztu ziguten 2016ko udal aurrekontuen zirriborroaren onarpenari. Zalantzarik gabe, interes orokorra alderdi-interesari gailendu zaio. Gure iritzian, denon artean aurre egin beharreko erronken aurrean, Durango lako udalerrri batek ezin zituen aurrekontu atzeratuak izan beste urtebetez. Izan ere, herritarrek merezi duten ongizatea lortzeko jarduerak mugatuko lituzke egoera horrek.

Alderdi popularrak zenbait zuzenketa aurkeztu dizkio aurrekontuen zirriborroari, eta denak egokiak iruditu arren, Durangoko langabeen kontrataziora zuzenduko diren 208.000 euroak nabarmendu gura genituzke.

Zuzenketa honek —ikuspegi sozial eta ekonomikotik nabarmenagoa denak— gaur egungo krisi ekonomikoaren ondorioz larrienari aurre egitea du helburu: pertsona kopuru handiaren langabeziari.

Alderdi popularren iritzian, Durangoko gizartearen arrakastak lanpostuen sorrera dakar, eta horixe da aukera guztien iturburua. Aldi berean, badakigu enplegua lan-taldean sortzen dela, gizartearekin bere osotasunean eta erakunde honekin, dagokion zati alikuotan.

Guk egindako gainerako zuzenketak ere —onartutakoak eta aurrekontuetan sartutakoak— pozik egoteko arrazoi dira, Durango hiribilduarentzat eta bertan bizi garen herritarrentzat dakarten onurarengatik.

** Erredakzioan itzulia*

DURANGALDEA ASTEON

Eskumuturrekoak errefuxiatuei laguntzeko

DURANGO > Egeo itsasoan errefuxiatuei laguntzen dabilen Itsas Salbamendu Humanitarioagaz bat egin du San Antonio Santa Rita ikastetxeak. Gaur berbaldia eskainiko dute boluntarioen lanaz informatzeko, 18:30ean. Horrez gainera, euren aldeko eskumuturrekoak salgai ipiniko dituzte gaurtik aurrera, bi eurotan.

Durango Txartelaren deskontuak aukeran

DURANGO > Dendak Bai merkatari elkarteak iragarri duenez, Durango Txartelagaz deskontuak lortu ahal izateko kanpaina martxan dago, hilaren 31ra arte. Txartel hori erabiltzen dutenek, %5eko beherapena jaso ahal izango dute kanpainagaz bat egiten duten komertzio edo dendetan.

Autobusa prest, Eskola Publikoaren jairako

ABADIÑO > Ekainaren 5ean ospatuko da Euskal Eskola Publikoaren jaia, Hendaiaren (Lapurdi), eta Abadiñoko Udalak hara joateko autobusa antolatu du. Errota kultur etxean edota Mediatekan eman ahal da izena, bakoitzak 5 euro ordainduta. Autobusa irteteko, gutxienez 20 lagunek eman behar dute izena.

IRITZIA

Udalak ia 900.000 euroko zorra du, eta aurten ez dugu aurrekonturik

Aurrekontua udal baten funtzionamendurako urtero egin eta onartu beharreko tresnarik garrantzitsuenak da, herri gisa hazteko eta herritarrenganako zerbitzua hobetzeko. Bada, Abadiñon gehiengoan gobernatzen duen gobernu talde bat izan arren, iazko aurrekontuak luzatu behar izan zituzte darabilten kudeaketa politiko kaxkarraren ondorioz. Eraikuntzan oinarritutako politikak goia aspaldi jo bazuen ere, Abadiñoko udal gobernu taldeak bere horretan darrai politika zaharrei uko egin ezinda. Hau da beraien eredu: eraikitzaileen mesedetan erabakiak hartu, obrek ematen dizkieten lizentzien mozkinekin itsututa, inongo irizpiderik barik udalarentzat dirua eskuratu, hiritzintza proiektuetan xahutu eta boterean mantenduz politikoak betetzen jarraitu. Zorraren jatorria Carburibarreko etxebizitza proiektuan du uda-

lak. Bertako promozioan eremu baten jabe den heinean, 891.871€ iritsi diren hainbat kosturi egin behar dio aurre. Udal gobernuaren aurreikuspena zen bere partzela enpresa eraikitzaile bati esleitzea, eta zorra kitatzeaz gain irabaziak izatea. Baina, gaur egungo egoeran, zeinetan finantziario arazoak erabat baldintzatzen duten etxebizitzaren salerosketa, enpresa eraikitzaile bat ere ez da esleipenera aurkeztu, eta zorrak bere horretan dirau. Alkateak batzordean esan zuen aurrekontuak luzatuak izango direla Carburibarren eta Muntzaratzen dituen partzelak esleitu arte. Kontu honek zenbat urtean blokeatuko ditu aurrekontuak? Enpresa eraikitzaileek baldintzatuta funtzionatu behar al du udal batek?

Mikel Urrutia, Aitor Azueta, Irakusne Gorospe, Meritxel Etxagibel eta Iker Azkorbebeitia (Abadiñoko EH Bilduren izenean)

astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:
Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta •
Izen-abizenak • telefonoa • helbidea
• Nortasun Agiriaren zenbakia

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO
Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarateak barne).

ANBOTOk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoen eta emandako iritzien erantzukizunik.

> Berbaz

Karmele (1933) eta M^aTere Larruzea (1928) eta M^aAngeles Barrena (1942) | Zornotza

“Gazteek hemen zelakoak gertatu ziren jakin dezaten balio dezakete horrelako ekitaldiek”

Frankismoaren biktimek instituzioen aitortza jaso dute Donostian. Pedro Uriguen gudari zornotzarraren lobak izan ziren tartean



> AKULUA Aitziber Basauri
Frankismoaren biktimek instituzioen errekonozimendua jaso dute Donostian. Iñigo Urkullu lehendakaria buru izan zuen ekitaldin izan ziren Pedro Uriguen gudari zornotzarraren senitartekoak ere. Maia-tzean osabaren gorpuzkiak jaso dituzte Mendatan Uriguenen lobek. Beraiekin egin dugu hitzordua.



PEDRO
URIGUEN

Nola bizi zenuten omenaldia?

M^aTere Larruzea: Pozik, baina, emozionatuta, etxetik atera gintuzten uneak gogoratu nituen eta. Milizianoak etorri, eta trintxerak eta alanbre-hesiak jarri zituzten etxe inguruan. Frontea zetorrela, hantxe jarriko zela esan zuten, eta etxetik irteteko.

Nora eraman zintuztetzen?

Karmele Larruzea: Bilbora eraman gintuzten loba denak, gure amak eta izebak, kamioneta

zahar batean. Lau urte bete barik nituen; Bilbon bonba batek hil egin ninduen ia. Galdakaon ere izan ginen ogia hartu guran. **M.T.L.:** Etxea baino beheratxoago zegoen lurpeko babeslekuaren inguruan lehengusuok jolasean genbiltzala gertatu zena ere gogoan dut. Gernikako hegazkinak ikusi eta entzuten genituen etxetik, baina, orduan, bonba su-eragileak bota zituzten etxe alboan. Korrika joan ginen babeslekura eta mantarretan, lepoan neraman lehengusu txikia bota egin nuen. Balkoitik ikusi gintuzten amak eta izebak, eta korrika etorri ziren.

M^aAngeles Barrena: Artean ezkongai zegoen ama. Hiru ahizpa eta lau neba —hiru fraideak— ziren.

Frankismoaren biktimei zor zitzaizaien aitortza izan da?

K.L.: Zorra kitatuta dago. Lehendakaria etorri zen, eta frankismoaren biktima denei egindako errekonozimendua zela esan zigun. Hainbat tokitakoak egon ginen. Alboko batzuk oso hunkituta zeuden: senitartekoa non dagoen lurperatuta jakin arren, ezin izan dutelako atera.

“**Guk lortu dugu gure nahia. Lasaitasuna eta halako ohorea lortu ditugu**”

M.A.B.: Guk lortu dugu gure nahia. Lasaitasuna eta halako ohorea lortu ditugu. 2003an hasi ginen osabaren gorpuzkiak jasotzeko lanean, eta 2015era arte ez dugu lortu. Urteak behar izan dira. Ama ere hil zen aurretik. Hala ere, amaren nahia izan da beti osabaren gorpuzkiak ekartzeari, eta hori bete da. Larra hile-rrian daude, bere alboan.

Horrelako ekitaldiek zauriak sendatzen laguntzen dute?

M.T.L.: Baliteke. Izebak beragaz gura zituen nebaren gorpuzkiak, eta desio hori bete du. Lasai egoteak ere bere balioa du. Hala ere, ezin daiteke ahaztu. **K.L.:** Barkatu, bai, baina ahaztu, ez. Hori ikasi dugu ‘Aita guri’ ere bai. Baina, ni pozik nago. **M.A.B.:** Min hori ezin da kendu.

Hil honetan jaso dituzue osabaren gorpuzkiak, Mendatan. Nolakoa izan zen une hori?

K.L.: Oso hunkigarria. Gorpuzkiak eta harekin aurkitutako hainbat gauza jaso genituen: koilara eta sardexka bana, gerrikoaren belarria, eta kartutxo bi ere bai, bala eta guzti. Harekin balekin zer egingo zuten, ba! Armamenturik ere ez zuten eta inori aurre egiteko. M^aAngelesek eta M^aTerek hartu zituzten; beraiei zegokien hartzea.

Gorpuzkiak jasoko zenituztela pentsatu zenuten inoiz? Nola bizi zenuten gertatutakoa?

M.A.B.: Ez. Bagenekien non zegoen, arti baten azpian. Urteetan joan gara hara, eta 75. urterenean gurutze bat ipini dugu. **K.L.:** Inondik inora. Aitak eta amak beldur handia zutela uste dut, eta ezer gutxi esan ziguten. Gero, osaba Mendatan zegoela hasi ziren esaten, eta txikitan hara joaten hasi nintzen neurekin. Aititari pena handia sortzen zion haretaz berba egiteak. **M.T.L.:** Ez zen berba askorik egiten etxean. Aitita eta amamagaz bizitakoak ditut gogoan. Aitita semeagatik galdezka ibili zen.

Jakin duzue non zegoen osaba. Baina, lurpetik atera eta probak egin ondoren izan duzue baieztapena, urrian. Zer sentitu zenuten?

M.A.B.: Jakin arren han zegoe-la, poza sentitu genuen.

K.L.: Lasaitasuna eta poza. Seguru ginen, baina baieztatu beharra zegoen. Garezurra garbitu zioten lehenengo, zuloak zituela ikusi genuen. Buruan egin zioten tiro. Frankistak heldu, eta zaurituta topatzerakoan “Dinos viva España” esan zioten, eta osaba isilik gelditu zen. Bigarrenez esan ziotenean ere bai. Hirugarrenez esan ziotenean, “Gora Euskadi askatuta!” erantzun zien. Tiro egin zioten.

Mendatiko baserri baten alboan zegoen osaba.

K.L.: Bai. Otxandio batailoian Oizetik ihesi etorri ziren. Goitik bonbak jaurti, eta harrapatu egin zituzten. Osaba zaurituta gelditu zen. Ondoa zegoen baserri batekoek dena ikusi zuten, beldurtuta. Gauean lurperatu zuten osaba. Baina, aurretik, dokumentazioa eta erlojua kendu zizkioten. Larrako komentura eraman zituzten, ezagutzen ote zuten galdetzerara. Baietz esan zieten, hiru anaia fraide zituela, eta leku onera joan zirela galdetzerara. Hala jakin genuen dena.

Gorpuzkiak ez eze, quintasuna ere berreskuratu duzue?

M.A.B.: Bai. Irrintzi Batailoian ibili zen gure aita, eta bizitakoak kontatzen zituen: nola egon zen preso, edo Santoñan bizitakoak. Saibgaineko borroka ere ekartzen zuten askotan gogora. Odol asko isuri zela zioen. Sarri hiltzea baino txarragoa zela esaten zuen, eta gauza oso tristeak bizi zituela. Pedro osabagaz ere ibili zen. Kontatu izan digu Intxortan egon zirela batera, eta hantxe banatu zirela. Ez zuen gehiago ikusi. Osabaren gorpuzkiak jasota bera ere geureganatu dugu.

Belaunaldi berriek ez dute memoria historiko hori?

M.T.L.: Gazteei ez diegu irakatsi. Dena den, gazteek hemen zer gertatu zen jakin dezaten balio dezakete horrelako ekitaldiek.

Zornotzan ospatuko dute Euskal Herriko Batukaden Topaketa

Zortzi batukada taldek parte hartuko dute, bihar, Zornotzan ospatuko duten egun osoko jaian

> MUSIKA Itsaso Esteban
Hemen eta han, takatan! lema-pean ospatuko dute Euskal Herriko Batukaden Topaketa, bihar, Zornotzan. Egun osoko programazioa prestatu du ekitaldia antolatzen ibili den Zornotzako Zaparrada taldeak.

Aurtengo topaketa antolatzaren jardun den Zaparrada taldea ezezik, beste zazpi batukada talde entzuteko aukera ere izango da, bihar, Zornotzan: Lasarte-Oriako Dinbi Danba, Ugarte-ko Zugatik, Bilboko Batukale, Durangoko Batukandra, Arrasateko Sambamaña, Gernikako

Tukatukada, eta Atarrabiako Niarawa taldeek ere eman dute izena jaialdian parte hartzeko.

Taldeei bakarrik ez, norbanakoei ere egin diete topaketan parte hartzeko gonbidapena, eta 25 lagunek eman dute izena.

Hasiberriei laguntzeko, jaialdian joko dituzten erritmoak ikasteko bideo tutorial bat zabaldu dute antolatzailleek topaketaren webgunean. Beraz, perkusioan lehen urratsak eman gura dituzten denek izango dute lekua Euskal Herriko Batukaden Topaketaren 20:00etako ekitaldi nagusian.



Zornotzako Zaparrada eta Lasarte-Oriako Dinbi Danba batukada taldekoek antolatu dute biharko egitaraua.

Lasarte-Orian ospatu dituzte topaketan aurreko hiru edizioak, eta herri horretako Dinbi Banda batukada taldearen laguntzagaz antolatu dute Zaparradakoek maiatzaren 21eko egitaraua. Goizetik goizaldera arteko jaia egingo dute Euskal Herriko Batukaden Topaketan. Zornotzako Irtenbide eta Los Zopilotes Txirriaos taldeen doinuekin amaituko dute eguna.

EGITARAUA

10:30ean, txupinazoa eta parte-hartzaileen aurkezpena

16:30ean, zumba saioa

11:30ean, tailerren hasiera (Beat Box, Dantza Afrikarrak eta Bodypercussion)

18:00etan, batukaden kalejira

20:00etan, ekitaldi nagusiaren hasiera

11:30ean, poteoa Burrunba elektrotxarangak girotuta

22:00etan, Irtenbide eta Los Zopilotes Txirriaos

15:00etan, herri bazkaria

* Zubiondo plazan izango dira ekitaldiak

“Udako egunen argitasuna eta arintasuna darie poema hauei”

Hitz liburu-dendan aurkeztuko du Peru Magdalenak ‘Argia’ poema liburua

> LITERATURA Itsaso Esteban
Maiatzaren 26an aurkeztuko duzu poema liburua. Zelakoa izango da ekitaldia?

Lagunen eta ezagunen aurrean aurkeztuko dut, eta ospakizun bat izatea gura dut. Liburuak bost atal dauzka, eta bakoitzean bi poema errezitatuko dut. Poematik poemarako tarteetan, jazzeko hainbat pieza joko du Uxue Alonsok.

Zortzi urte pasatu dira ‘Hutsik’ poema liburua kaleratu zenuenetik. Hura amaitu zenuenetik ibili zara ‘Argia’ liburu honetarako poemak pentsatzen?

Ez, azken bi urteetan idatzitakoak dira liburu berrikoak. Uda bitan idatzitakoak, zehatzago esateko. Udako egunen arintasuna eta argitasuna darizkie poema hauei: azala, izarak, hegoak, ardo zuria... 2008an *Hutsik* kaleratu eta gero, nire jardun poetikoak geldialdi moduko bat izan zuen: lan konklusiboa izan zen hura. Hustuta bezala geratu nintzen liburu hura argitaratu eta gero. Haren ostean, poesia gutxi idatzi dut hainbat urtean. Txundidura une batean *Argia* jostalari etorri zen arte...

Diozunez, igartzen da udan idatzitakoak direla poemok.

Bai, eta, idatzi baino, poemok destilatu egin nituela sentitzen dut: berbaz berba, tantakaz takata. Estasi uneak egoten dira sorkuntza prozesuetan, eta, horretarako, oso aproposak dira telefonoa etxean utzita, sorkuntzara buru-belarri emanda egoteko aukera eskaintzen duten egunak: oso une ederrak izaten dira. Ume bat zerbaitetan oso kontzentratuta dabilenean bezala, norbere ahalmenei tiraka sortzen den emariagaz jolasten ibiltzeak zoriontasunetik oso gertu dagoen leku batera zaramatza. Aldiz, bestelako ardurek estasi uneak zapuztu egin ditzakete, sarritan.

Gaien arabera, bost ataletan banatu duzu liburua.

Poesiaren argizaria da lehenengo atala; Berriz bizitako haurtzaroari buruzkoa *Elurte handia*; Hirugarren ataleko gaiak gaztaroa, maitemina, Mediterraneoa... dira, eta *Ekialdea* du izenburua; Bizitzarekiko nire jarrera politikoaren azalpena da *Argia*; eta *Argizakiarena* da azkena: estasia.

Poema guztietan nabari da baikortasun moduko bat.

Neu naizena osorik bota dut liburuan: oso zintzoa da. Nire bizitza pertsonalean ‘klik’ egin dudana momentu bat egon da: bizitzarekiko jarrera politiko jakin bat hartu dudana une bat. Liburu honetan badaude ideia horiek: errealtatea, kanpoan baino, geure barruan dagoela, esate baterako.

Eta ikuskera horren onurak irakurleagaz partekatu gura dituzula ematen du.

Bai, eta ikuskera horren mui-nean dauden galderak ere partekatu gura ditut jendeagaz: “Zer da zoriontasuna?”, edo, “Zerk du eragin negatiboa gure zoriontasunean?”.

Haurtzaroari buruzko olerkietan dago zoriona?

Bai, izan ere, atal horretan jasotako Rilkeren olerkian esaten den bezala, haurtzaroa dugu aberri infinitu. Haurtzaroan sustraituriko sinbolo asko dabilkigu gero bizitzan zehar. Edozelan ere, dena da erlatiboa, eta ezin dugu ahaztu oroitzapenak ere asmakizunak direla.



Zortzi urte dira Magdalenak ‘Hutsik’ poema liburua argitaratu zuela.

Beste literatur-genero batzuk sortzen baino zoriontsuagoa zara poesia idazten?

Poesiarekiko sentitzen dut bul-kadarik puruena. Ihes egiten didala sentitzen dut: nire kontrolatik kanpo dagoen zerbaitek eramana bezala sentitzen naiz poesia idaztean. Arrazoiketarik kanpo dauden prozesu horiek onartzeko kapaz zarenean, oso jolas ederrak sortzen dira.

Bi berba elkartuta, zeuk sorturiko hainbat hitz daude poemetan: ‘argizakia’ esaterako.

Bai, horrelako asko daude liburuan: aditz bihurtu ditudan adjektiboak, esaterako... Bidean topatu ahala idatzi ditut, oso prozesu intuitibo batean: jolasaren parte da. Orokorrean, baina, poema hauetan badago soiltasunaren eta arintasunaren bilaketa bat ere.

Ertibil erakusketarako hautatu dituzte Garatu eta Pan artisten lanak

Iñigo Garatu eta Damaris Pan Durangaldeko sortzaileen lanak hautatu dituzte Ertibilerako

> ARTEA Itsaso Esteban Bizkaiko Aldundiak antolatzen duen Ertibil erakusketa ibiltariaren parte izateko hautatu dituzte Damaris Pan eta Iñigo Garatu Durangaldeko artisten lanak. Amaia Garciak jaso du 2016ko Ertibil lehiaketako lehenengo saria, Irantzu Yaldeberek bigarrena eta Helena Goñik hirugarrena, baina hiru saridun horien lanekin batera, beste 17 artistaren obra ere aukeratu dute erakusketa ibiltariaren bilduma osatzeko. Bizkaiko hogeita artista gazteren artelan bana jasotzen du Ertibil erakusketak, aurten: sariketaren deialdian jaso zituzten 109 lanetatik epaimahaiak hautatu dituen hogeia, hain zuzen ere.

Hirugarren aldia da Damaris Panen (Mallabia, 1983) lana Ertibil erakusketarako hautatzen dutena. Tamaina txikiko mihisean olioagaz margoturiko koadro bat da, aurten, Damaris Panek Ertibilen erakusten duena. Mallabiko artistak azaldu

duenez, “figurazioaren eta abstrakzioaren arteko dikotomia gainditzeko”, bere ibilbidean zehar egin duen saiakera dago artelan horren atzean ere. Ertibilerako hautatu dioten lan hau, egilearen berbetan, “ez da ez figurazioa, ezta abstrakzioa ere”. Izan ere, Mallabiko artistak azpimarratu duenez, “errepresentazioaren konbentzioen artean” bere bide propioa urratu gura du: “Berez direnaz aparte beste esanahirik ez duten sorkuntzak burutu gura ditut”.

Iñigo Garatuk (Iurreta, 1990), bestalde, *Ateak zabalik?* lana aurkeztu du Ertibil erakusketan ibiltarirako. Europar Batasunak errefuxiatuen krisiari eman dion erantzun “ezmoral eta legez kontrakoa” kritikatzen du Garatuk bere eskultura lan horregaz. Bosgarren aldia izan da Iñigo Garatuk Bizkaiko Aldundiaren deialdi honetara bere lana aurkeztu duena, eta oso pozik agertu da “azkenean” ailegatu delako bere momentua.



Aurkeztu den bosgarren aldian lortu du Garatuk aukeratua izatea.



“Figurazioaren eta abstrakzioaren dikotomia gainditu guran” dihardu Panek.



Bilboko Rekalde aretoan egingo du Ertibil 2016 erakusketak lehenengo geldialdia, eta abenduaren 29ra arte, Bizkaiko beste hainbat herritan egongo da ikusgai. Uztailaren 19tik abuztuaren 14ra arte, Durango-

ko Arte eta Historia Museoa, eta abenduaren 20tik 29ra, Etorrion egongo da ikusgai.

Mikel Onandia arte kritikari durangarrak idatziriko testuekin osatu dute Ertibil erakusketaren aurtengo katalogoa.

GEURE DURANGALDEA

GARAZI MUGARZA
Ikaslea



Amets bat

1931n abestu zuen Txirritak *bart ametsetan amona xar bat inguratu da nigana*, eta hala jarraitu zuen gero; *baju-bajutik galdetu niyon “Ama Euskerara al zera?”*. Etsita, zahartuta eta *nere izkuntza maitatzen duten semiak bixitatzen* etorria zen, eta egun nire ametsen batera itzuliko balitz, atseginez entzungo nituzke haren berba zuhurrak.

Ez dakit gure txikitik geu goazen txokora, ala zokoratu egin nahi gaituzten norbaitek hala erabaki duelako. Batzuetan irainduta sentitzen naiz euskalduntasuna kanpora begirako zerbait bilakatu dela iruditzen zaidalako; alegia, turismora zuzenduago dagoe-la geure baitara baino.

Gorrito adina kultura balute euskara euren intereserako folklorismo gisa erabiltzen dutenek, Euskal Herria *Basque Country* gisa saldu nahi dutenek -eta gero legearekin ahoa betetzen dutenek Nafarroan Euskal Telebista debekatu eta haur eskola euskaldunen eskaerak atzera bota izana justifikatzeko-, agian desberdina litzateke dena, baina bakoitzak hausnartu beharreko afera da honen aurrean hartu nahi den jarrearena.

Ama euskarak *miñez egon naiz juan dan berrogei eta amabost urtian; nere malkorik ezta legortu ordutik orañ artian* aitortu zion malkoz Txirritari duela laurogeita bost urte. Gutako bakoitza amets batean bisitatuko balu, ederra litzateke malkoak zapi banarekin lehertzeko adina maitasun izatea. Egoez jabetzeak arduratsuago egin behar gintuzke, baina tamalez justu kontrakoa ari da gertatzen.



Klarinetista da Gonzalez, Argixe taldean.

Joe Gonzalez 'Argixe' entzungai, Eleizetan

Zornotzan Boroako baselizan joko dute, domekan

> MUSIKA

I.E. Joe Gonzalez Zornotzako klarinetistaren hirukoteak joko du Eleizetan musika zikloko hirugarren hitzorduan. Maiatzaren 22an, 12:15ean, Boroako San Pedro baselizan izango da kontzertu hori. Gonzalez zornotzarragaz batera, Ales Larrazabal pianistak eta Belen Fernandez txelistak osatzen dute Argixe

hirukotea, eta Brahmsen La minorreko 114. opusa joko dute emanaldiaren lehenengo partean. Ganbera-musikako hirukoteentzako Erromantizismoko errepertorioko obra erreferentziala da Brahmsen hori. Kontzertuaren bigarren zatian, berriz, Astor Piazzolaren lau tango joko dituzte Gonzalezek, Larrazabalek eta Fernandezek.

Eragion-k sokari

Kurutziaga ikastolako Antzerki Taldea

Maiatzaren 20an, 22:00etan
Maiatzaren 21ean, 20:00etan

Sanagustinalde, 12 - Tel.: 946 030 021
sanagustin@durango-udala.net

San Agustín KULTUR GUINEA

PLATERUENA


Durangoko Kafe Antzokia www.plateruena.eus
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

JAT ETX EA EGUNEKO MENUA IGANDEETAN MENU BEREZIAK	MAIATZAK 22 18:30ean EUSKAL KANTU TXAPELKETA KANTALDIA	MAIATZAK 27 19:30ean COMBO KONTZERTUAK KONTZERTUAK	MAIATZAK 28 13:00etan KANTULAGUN KALEZ KALE KANTZALDIA
--	---	---	---

etxea jantzi

ANBOTOKO DEKORAZIO
GEHIGARRIA 2016

anboto
komunikabideak



EGONGELA | LOGELA | UMEEN LOGELA | SUKALDEA | ARGIZTAPENA



grupo
amuebladora
mondragonesa

centro hogar MUEBLES

koltxoi
leku

sofa
leku

Zigarrola, 1 - ARRASATE
Tel.: 943 791 503

BANAK
importa

Zerkaosteta, 3 - ARRASATE
Tel.: 943 711 011

etxea jantzi



EGONGELA

3



LOGELA

7



UMEEN LOGELA

9



SUKALDEA

10



ARGIZTAPENA

14

etxea jantzi

Zure etxea dekoratzeko hainbat ideia aurkituko dituzu jarraian. Irudimena erabiltzea izaten da etxearen irudia aldatzeko lehenengo pausoa. Aldaketa handi bat egiteko premia izan zedin ez, gida honetan hainbat aukera aurkituko dituzu. Etxeko sofa zaharra tapizatzea zedin hormak margotzea eskura ditugun aldaketak dira. Erraz egin daitezkeen aldaketa hauekin, zure etxea goitik behera eraberritu dezakezu.



etarte

www.etarte.com

Euskal Herria z/g. ZALDIBAR
T/F: 946 030 416 - 635 717 360
info@etarte.com

Ideiak sortu

Diseinatu

Eraiki

Apaindu

Bermatu

Barruetako diseinua

Barne- diseinatzailea:
GARAIZI BURGOA



**EGONGELA****Egongela eta jangela:
Sinpletasuna nagusi**

Egongela izaten da etxean izaten garenean gehien erabiltzen dugun espazioa. Horregatik, bakoitzaren beharizanetara moldatu beharra dago, bai koloreari dagokionez baita estiloaren aldetik ere.



gandarias
Interiorismo

Arkotxa kalea, 6 - 48200 Durango
info@mueblesgandarias.com
Tel.: 946 810 722





Tradizioa eta modernitatea uztartuz

Kolore neutroak dituen sofa bat hartuz gero, jar iezaiezu kolorea eserlekuei edo alfonbrari.



Nola aukeratu sofa eta eserlekuak? Eta alfonbra eta gainerako osagarriak?

Onena, lehenengo, sofa aukeratzeara da. Horren estiloaren arabera aukeratuko ditugu gainerako osagai guztiak.

leike

aroztegia
diseinua &

NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leikearoztegia.com Antso Estegiz, 3 Durango · Tlf.: 94 681 72 29 · leike.ad@gmail.com

izei®

Zuekin 1980tik



AROTZERIA ETA EBANISTERIA

Ate bereziak, egile-oholtzak,
beira-zuntzezko zoruak eta arotzeria oro har.

DISEINU ETA FABRIKAZIO PROPIOA

Sukaldeak, armairuak, bainugelak, logelak, gazteei zuzendutakoak, saloiak.
Bulegoetako altzariak eta kolektibitateak.

ENPRESA HOMOLOGATUA

Polimeroen eta erretxinaren erabilera, HI-MACS® kasu,
ezin hobe sukalde-gainekoetarako, bainugeletarako eta laborategi-mahaietarako,
eta baita diseinuzko pieza berezietarako ere.

ERABERRITZEAK

Etxebizitzak, merkataritza-lokalak eta enpresak.
Gremioen koordinazioa "obra giltza eskura".

FINANTZIAZIOA ZUEN NEURRIRA
www.izeidecoracion.com



Enpresak Premie
ziurtagiria dauka



'Vintage' estiloko
eserlekuek
originaltasuna
emango diote zure
egongelari. Arriskatu
zaitez!

Etxeko sofa egoera
onean egon arren, zikin
badago edo zahar itxu-
ra badauka, tapizatzea
aukera paregabea izan
daiteke.



Egongela da osagarriak jartzeko
aukerarik zabalena eskaintzen
duen etxeko espazioa. Lore-
ontziak, dekorazioko objektuak...
Zure gustuak ez du hutsik egingo!







artezi
TAPIZERIA
www.artezikoop.com

sofak aulkiak moto eserlekuak besaulkiak klasikoak
kuxinak neurrira bakarra oheburuak gortinak
modernoak furgonetako oheak autoak entelatuak
oihalak zaharberitzeak konponketak etxebizitzak
ostalaritza profesionala bereziak eskuoheak
fundak aparrak barrualdeak kanpoaldeak

TAPIZATUAK NAHIERAN 943 700 994



LOGELA

**Erosotasunaren erresuma:
Espazio atseginak**

Logela erosotasuna bideratua egon behar da. Horrek ez du esan gura diseinua garrantzitsua ez denik. Mota askotako osagarriak uztartuz konbinazio originalak sortu daitezke



*Egurrezko ohe-
mahaia altzari
estilo guztiekin bat
dator. Zuriz ere
margotu daiteke*



Logelan kolore
neutroen aldeko apustua
egitea komeni da.
Kalitatezko edredoi bat
kolore anitzeko kuxine-
kin batu daiteke.



**APAINKETAK
ROYUELA**
BERNIZADURAK-LEUNKETAK
Jokatu zure espazioekin modu
xume eta pertsonalizatuan


Kalebarria, 40 Durango
Tel.: 946 810 582 · info@royuela.biz





*Behar bezala atsedean hartzeak
gure osasunean eragin zuzena
du. Horregatik, logelaren disei-
nuak badu bere garrantzia.*

**Kolore neutroak,
zuria, beisa zein
pastel koloreak
aukerakoak dira
logelako altzari eta
osagarrietarako.**



Karmelo Agirre
Barne Diseinua

Top+ Interiors

610 50 10 86

jazz
solutions

interiorismoa . proiektuak 3Dn . irekitzeko lizentziak . altzari eta dekorazio pertsonalizatua . obraren
zuzendaritza . binilo pertsonalizatuak . gremioen koordinazioa . obrak etxebizitza eta lokaletan

www.jazzsolutions.es

telef.: 94 621 59 64



Durango plaza 12 etxabea

48200 DURANGO - BIZKAIA

interiorismoa

lan guneak

kudeaketa bisuala

Diseinu koloretsuak umeen gozagarri

**UMEEN
LOGELA**

**Erabilera anitza:
Jolasteko eta lo egiteko**

Umeen logelek funtzio bikoitza izaten dute: jolasteko eta atsedan hartzeko erabiltzen dira. Beraz, diseinuak bi aukerak aurreikusi behar ditu.



Fantasiaz betetako umeen logeletan kolore biziak erabili daitezke. Utzi aske zure imaginazioa eta dekoratu ezazu ausardiaz!



GANBERA
interiorismo

**Barneko proiektuak
eta eraberritzeak**



Salmenta: altzariak, tapizak,
dekorazioa, alfonbrak, gortinak, paperak...
Zezilia Gallartzagaitia, 13 · Zornotza · 946 732 822

etxedreams
COLCHONERIAS

%50 eko
DESKONTUA
Koltxoietan



DURANGO: Mikeldi 4 - Tel.: 946 202 138

Modernitatea sukaldeen mundura heldu da. Elektrotresnak kontrolatzen dituzten aplikazioek bizitza erraztuko dizute.

SUKALDEAK

**Sukalde modernoak:
Berrikuntza teknologikoak**



Sukaldea diseinatzera-koan, espazioen banaketak garrantzi handia du. Erabaki horren arabera gauzatuko da diseinu guztia.



Ebanistería AGUSTIN

Murueta kalea, 1
48220 Matiena/Abadiño
946 812 685 - 667 590 795
www.ebanisteriaagustin.com
www.facebook.com/ebanisteriaagustin

**PROIEKTUAK
ETA ERREFORMAK
GREMIOEN
KOORDINAZIOA**

BERTAKO FABRIKAZIOA ETA DISEINUA
Etxeko altzariak: logelak, egongelak,
armairuak, sukaldeak eta komunak.

D3 arkitektura
gestioa
hirigintza

Elkartegia. Landako 4. Durango
www.d3arquitectos.com



PROIEKTU ERAGINKORRAK EMAITZA FUNTZIONALAK

Bizitzako gure ilusio eta inbertsio handienaren aurrean,
kontuan hartu behar ditugu hainbat gako
proiektu bat gauzatu gura dugunean.
Hasteko, beharrianak objetiboki aztertu.
Energia aurreztuko duten teknologia eta sistemen aldeko apustua egin,
material iraunkorak eta kontsumo arduratsua.
Aholkuak jaso leihotako beiraren funtzio termikoez eta akustikoez.
Informatu erabilitako materialak ondo mantentzearen inguruan.
Diseinatu espazioak: argitasuna, funtzionaltasuna eta antolaketa.
Profesionalak prest eduki, emaitzarik onena bermatzeko,
gure ilusioak egi bihurtzea lortzeko
eta egindako inbertsioa errentagarri izateko,
inguru osasuntsu eta bizitzeko primerakoa sortzeko



ALTZARIAK - PROIEKTUAK - BERRIKUNTZAK

Arriluzea, 3
48.200 Durango, Bizkaia
(34) 946 202 626
pizeli.com

Osagarrien landa- ukitua

Obiko altzari eta elektro-
tresnez gainera, osagarriekin
ukitu berezia eman diezai-
kezu zure sukaldeari.



Sukaldeko osagarri nagusienetako bat aulkiak izaten dira.
Mota ezberdinetakoak konbinatzea aukera bat izan daiteke.



Sukaldea eta jangela
batzea moda-modan
dago. Horrela,
espazio zabalaren
sentsazioa emango
du, batez ere leku
falta badago.



Bertako fabrikazioa

febal COLOMBINI
etxeen ordezkariak

Bainugelak • Sukaldeak
Etxeko altzariak
Horma-armairuak



San Miguel, 16 - **Zornotza** • Tel./Fax: 946 734 583 • cocitaketam@gmail.com
Olleria, 3 - **Durango** • Tel.: 946 201 516 • cocitaketdu@gmail.com



piolarrabe

Fra Juan Zumarraga, 19
48200 DURANGO
Tel.: 946 811 696
Faxa: 946 811 101

Elexalde, 28
48940 LEIOA
Tel.: 944 631 321
Faxa: 944 636 067

www.piolarrabe.com

EPÓCA

ERREFORMAK - SUKALDEAK
BAINUGELAK - ALTZARIAK - DEKORAZIOA



%50eko DESKONTUAK
DENDA GUZTIAN ESPOSIZIO ALDAKETAGATIK
EZ GALDU AUKERA!

• Zuk nahi duzun etxea egiten lagunduko dizugu •

Madalenoste, 7
Tel.: 946 472 012
epoca@epocasukaldeak.com
48200 DURANGO Bizkaia

• www.epocasukaldeak.com •

jarrai gaitzazu Facebook-en!
 [epoca.goro](https://www.facebook.com/epoca.goro)

San Juan, 5
Tel.: 943 700 216
epoca@activahogar.com
20600 EIBAR Gipuzkoa



**ARGIZTAPENA**

**Atmosferak sortuz:
Lanparen konbinazioa**

*Etxe bat dekoratzerakoan argiztapena
ez da amaierarako utzi behar.*

Argiztapenaren bidez
giro atseginak sortze-
ko aukera izango duzu.
Etxe berean atmosfera
ezberdinak uztartu ditza-
kezu.



**Mahai gaineko
lanparetan
foko bakarra
edo anitza izan
dezakezu.**



Eraikuntzarako materiala

MACOBER

Zeramika eta gresa

Eitua industriagunea, 66 BERRIZ
Tel.: 946 827 890 macober@movistar.es



ILARGI
ARGIGINTZA

Askatasun etorbidea 20 - DURANGO - Tel.: 946 812 492
www.facebook.com/ilargiiluminación



JUAN DE OLAZARAN

Apartamentua. Logela 1.
Komuna. Sukaldea
esekitokiarekin.
Egongela terrazarekin
eta ganbara. 155.000€

**ETXETXO****G. INMOBILIARIA**

ETXEBIZITZEN SALEROSKETAK ETA ALOKAIRUAK

www.inmoetxetxo.com**IURRETA**
Elizalde kalea

BERRIA ESTREINATZEKO.
100m2. 2 logela. 2 komun.
Sukaldea esekitokiarekin.
Egongela terrazarekin.
Ganbara eta garajea itxita.
245.000€

TABIRA


3 logela. 2 komun.
Egongela terrazarekin.
Sukaldea esekitokiarekin.
Ganbara. Garajea. Eguzkitsua.
298.000 €

MURUETA TORRE

134 m2. 4 logela. 2 komun.
Sukalde-jangela.
Egongela terraza
EGUZKITSUAREKIN.
Trastelekua eta hiru garaje toki.
299.000€

MATIENA
Laubideta

4 logela. Komuna.
Sukaldea. Despentsa.
Egongela terrazarekin.
Garajea aukeran.
155.000 €

KURUTZIAGA

80m2. 3 logela. Komuna.
Sukaldea eta egongela.
Balkoia. 130.000€

IURRETA

3 logelatako etxebizitza.
Komuna. Sukaldea
eta egongela. Trastelekua.
Igogailua. Berogailua.
DENA BERRIA. 160.000€

F.J. ZUMARRAGA


100m2. 4 logela. 2 komun.
Sukaldea. Egongela.
Ganbara eta garajea.
236.000€

ZALDIBAR

AZKEN ETXEBIZITZAK.
ESTREINATZEKO
3 logela. 2 komun. Egongela.
Sukaldea. Terraza.
Trastelekua eta garajea.
159.000€ (BEZa barne)

ARANDOÑO TORRE

ERDIALDEAN. 4 logela.
2 komun. Sukaldea. Esekitoia.
Egongela zabala.
Garajea. Solariuma.
256.000€

**ETXETXO****G. INMOBILIARIA**

ETXEBIZITZEN SALEROSKETAK ETA ALOKAIRUAK

**Ekainean bisitatuko gaituzten
guztiek opari bat jasoko dute!**

Frai Juan Zumarraga kalea, 11 - 48200 Durango
Tel.: 946 814 049 - 657 790 138 - info@inmoetxetxo.com
www.inmoetxetxo.com





B A U T I S T A
MUEBLES Y DECORACIÓN
LAUDIO - ABADIÑO

Bautista Sukaldeak



Kanpaina berezia
%30era arteko deskontuak

**Deskontu bereziak sukalde eta bainugeletako altzarietan,
etxetresna elektrikoetan, mahaietan eta aulkietan**

**Zure erosketa %100 finantzatzen dugu
sarrerarik, interesik, komisorik eta gasturik gabe
10 kuota eta 3 hilabeteko gabezia
Lehenengo kuota irailean**

www.bautistamuebles.com

info@bautistamuebles.com

 94 672 77 00

Urbite Industriagunea, 4 - 2. pabiloia ABADIÑO
(Eroski merkataritza-gunearen ondoan)

Gaur abiatuko dute Durangoko Euskal Astearen programazioa

Durangoko 28 elkartek antolatu dute gaurtik ekainaren 18ra arteko egitaraua

> PROGRAMAZIOA I.E.

Gaur hasi eta ekainaren 22ra arte, kultur eta kirol ekitaldiz eta euskal folklореaren erakustaldiz beteko du XIX. Euskal Astearen programazioak Durango. Udalaren babesagaz programa-

zio hori osatu duten 28 elkarte eta ikastetxeen ordezkariak aurkeztu zuten aurtengo egitaraua, joan zen egunean, udaletxean. Iaz baino hiru elkarte gehiagok parte hartu dute aurten programazio horren antolakuntzan.

Kirol ekintza batek zabalduko du egitaraua: eskolako haurren esku pilota txapelketak, hain zuzen ere. Gaur hasiko dira partidua jokatzeko, 18:00etan Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan. Bestalde, VII. Peter Memoriala

ere gaur hasiko da: jaialdi horren final laurdenak jokatuko dituzte, 19:30ean.

Dantza eta musika izango dira nagusi asteburuan. Euskal Asteko dantzen jaialdiaren lehengo emanaldia bihar izango da. Zuberoako Muskildi herriko taldea eta Durangoko Tronperri Andra Mariko elizpean arituko dira, 19:30ean. Domekan ere, euskal dantzak izango dira ikusgai, 12:30ean, Durangoko Andra Mariko elizpean: Donostiako Goizaldi, Gasteizko Adurtza, Donibane Garaziko Garaztarra eta Agoizko dantza taldeak arituko dira.

Arandoño kultur elkarteak antolaturiko kontzertua izango da domekan, Kurutzesantu Museoan: Gerardo Rifón eta Francisco Herreroen organo eta biolin kontzertua.

Asteburu honetan hasi eta hilabetez luzatuko da Durangoko Euskal Astearen programazioa. Ekainaren 18an izango da azken hitzordua: hasi zen bezala amaituko da programazioa, esku pilota partiduekin.

Bat-bateko bertsolaritza utzi berri duen Xabier Amuriza eskertzeko Bizkaiko Bertsozale Elkartek antolatu duen *Emaida-zue freskura* jaialdia ere badago Euskal Astearen egitarauaren barruan: Plateruenean izango da jaialdi hori, ekainaren 17an.

Crowdfundinga abiatu dute Memoria de Pez zornotzarrek

> MUSIKA I.E.

Zornotzako Memoria de Pez taldeak crowdfunding kanpaina abiatu du *Serendipia* deituko duten laugarren diskoa kaleratzeko finantziarioa lortzeko. Bederatzi kantako diskoa da Memoria de Pez taldeak musikazaleen ekarpenaren laguntzagaz grabatu gura duena, eta 4.000 euro bildu beharra dute, horretarako. Oraindik beste 20 egunetan egin ahalko da ekarpena www.vercami.com webgunean, baina ia 3.000 euro lortu dituzte, dagoeneko.

Bederatzi kantako diskoa kaleratu gura du Memoria de Pez taldeak jendearen ekarpenagaz

Ekarpenaren zenbatekoaren arabera, trukean, hainbat sari jaso ahalko ditu musikazaleak, diskoa ezezik, *merchandise* ere prestatu baitute: kamisetak eta txapelak ere atera dituzte, esaterako.



Euskal Astea antolatzen duten elkarten ordezkariak aurkeztu zuten programazioa joan zen egunean.

Arriolan joko dute bihar musika eskolako kideek

Ehundik gora musika ikaslek parte hartuko dute

> MUSIKA I.E.

Garamenditar Agustin Musika Eskolako ikasleen udaberriko kontzertua hartuko du Elorrioko Arriolak, bihar. Musika eskolako ikasleen familiarteko eta lagunak ezezik, bertaratzea gura duten elorriar guztiak gonbidatu dituzte emanaldira. Doako sarrera edukiko du kontzertuak, eta 18:30ean hasiko da.

Sei urteko ikasleetatik hasi eta helduetaraino, Musika Eskolako ehun ikaslek baino gehiagok joko dute biharko emanaldian. Kantuko ikasleak, haize-instrumentuen taldea, eskusoinu-jotzaileak, trikitilariak, gitarrikak eta biolinistak entzuteko aukera izango dute, besteak beste, biharko emanaldira joaten direnek. Musika eskolan urte guztian zehar egiten duten lanaren erakusle izango da Arriolako emanaldia. Errepertorio oso anitza eskainiko dute: Mozarten konposizioak zein gaur egun sortutako kantak joko dituzte.

2015ean Musika Eskolaren 25. urteurrena bete zelako, hasiera berezia izan zuen ikasturtearen amaiera ospatuko dute bihar, Elorrioko Arriolan.

Doako sarrera edukiko du musika eskolakoek bihar Arriolan eskainiko duten kontzertuak

Errepertorio oso anitza eskainiko dute: Mozarten konposizioetatik hasi eta egungo musikaraino

Dagoeneko, baina, Elorrioko Garamenditar Agustin Musika Eskolan lanean hasita daude ikasturte berrira begira. Ekainaren 10era arte matrikulazioa zabalik daukate.

‘Amour’ obrak itxiko du Zornotza Aretoko uda aurreko eskaintza

Gaur, 20:00etan, eskainiko dute Zornotzan Feten saria jaso duen antzezlan

> ANTZERKIA I.E.

Zornotza Aretoko uda osterako egitaraua itxiko du Marie de Jongh taldearen gaurko emanaldiak. *Amour* antzezlan eskainiko dute, 20:00etan, Zornotza Aretokan: FETEN antzerki jaialdian saritu duten obra, hain zuzen ere.

Zazpi urtetik aurrerako ikusleentzat sortutako antzezlan da *Amour*, testurik ez daukana. “Umeek eta nagusiek elkarrengoz gozatzeko moduko” antzezlan bat sortzea izan da, hain zuzen ere, Marie de Jongh taldearen erronka. *Amour*, “umeentzako antzezlan heldua,

helduei zuzenduriko ume antzezlan” dela diote egileek.

Durangaldeko artistak

Javier Renobales zornotzarrek dihardu *Amour* antzezlanean aktore lanetan. Beragaz batera, Ana Martinezek, Ana Meabek, Pablo Iberluzeak eta Anduriña Zurutuzak osatzen dute obra horretako aktore zerrenda. Gainera, besteak beste Durangaldeko Gorakada taldeagaz hainbat lan egin dituen Javier Tirado Markeliñeko kideak egindako maskarak daramatzate aktoreek soinean.

Mundua jolasaren bitartez ezagutzen doazen umeak, denboraren iragaiteaz ezer ez dakitenak eta 60 urte gehiago daukaten pertsonak dira *Amour* antzezlanaren protagonistak. Umeek ez bezala, zaharrek badakite zer dakarren denboraren joanak, baina antzezlanaren sinopsian esaten denez, “ez dakitena da maitasunak aukera berri bat eskaintzen duela beti”.



Javier Renobales Zornotzako aktorea dago aktoreen zerrendan.

OSASUN GIDA



FISIOTERAPIA

Zainduz

**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea,
behea eskuma
48220 MATIENA-ABADIÑO

Tel.: 944 657 132 - 686 906 374

RPS: 119/13



PABLO ZUBIZARRETA
FISIOTERAPIA ETA OSTEOPATIA

Muruetatorre, 2D - 48200 DURANGO
pzubizarreta@gmail.com

Tel.: 946 550 049
Mug.: 695 784 963

RPS: 57/16



PEDAGOGIA

UGATZ

**UMEAREN
GARAPENERAKO
ZENTROA**

Laguntza goiztiarra, psikomotrizitatea,
fisioterapia, logopedia

Juan Olazaran, 1 behea
48200 DURANGO

ugatz@hotmail.es

Tel.: 944 668 370 - 615 782 090

RPS: 63/63



PODOLOGIA

**PODOLOGIA
KLINIKA**

**GOIATZ MURUA
PODOLOGOA**

**AINHOA ELORZA
PODOLOGOA**

Kiropodia, onikopatia, alterazio
dermatologikoak eta ibilerako alterazioak

Monagotorre, 4 - behea
48200 DURANGO

Tel.: 946 203 630

RPS: 148/13



ESTETIKA

AGIRRE KLINIKA
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaesteticadurango.com

Laser berria:

Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitatea-zelulitisa,
Laserra: depilazioa (prezio bereziak), barizeak...
Adinaren kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

Txatxiena, 6
48200 DURANGO

Tel.: 946 810 387

RPS: 16/09



OPTIKA

keinu optometria zentroa

Nala Zabala Azumendi
11587 kol. zk.

- Optometrian teknika aintzindariak.
- Kontaktologia.
- Haurren ikusmena.
- Ikusmen terapia.
- Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia.
- SENA estimulazio neuroauditiboa.

Arkaraz 3
48240 Berriz
tel: 946225099

www.keinuoptometrizentroa.com

RPS: 162/13



ODONTOLOGIA

clínica dental hartzklinika

**B. UNAMUNZAGA
E. ETXEBARRIA**

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALIZATUA

Muruetatorre, 2C - behea
48200 DURANGO

uecdental@gmail.com

Tel.: 946 819 951 Mug.: 717 194 454

RPS: 145/13

J.L. URRETA ZABALO

MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.
48200 DURANGO

Tel.: 946 812 200

RPS: 112/13



PSIKOLOGIA

JON ARRUABARRENA

PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 - DURANGO
jon@psikologo.biz - www.psikologo.biz

Tel.: 946 033 246 - 629 245 728

RPS: 62/11

Ospakizun bat eta harro egoteko hamaika arrazoi utzi ditu Tabirakoren liga amaierak

Gizonen bigarren taldea Bigarren Nazionalera igo da; talde nagusiek aurpegia eman dute igoera fasean



Bigarren Nazional mailara igo den taldea Landako kiroldegian igoera ospatzen. Naia Fernandez Bizkaiko Saskibaloia Federazioa.

> SASKIBALOIA J.Derteano
Joan zen asteburua berezia izan zen Tabirako saskibaloia klubarentzat. Hiru talde nagusiek igoera faseak jokatu zituzten. Hiruretako batek Bigarren Nazional mailara igotzea lortu du. Beste biek ezin izan dute denboraldia borobildu, baina lorpen

konkretuetatik haratago, denen artean, helburu garrantzitsuago bat lortu dute: Durangon saskibaloia lau haizetara zabaldu eta aupada handi bat ematea.

Landako kiroldegia emakumeen lauko finala eta gizonen igoera fasea hartu ditu azken asteburu bietan: “Aukera horrek

saskibaloia barrutik bizitzeko modua eskaini die zaleei, eta dena eman dute. Ilusioa eragin du herrian. Hori oso garrantzitsua da”, dio Ina Mendibe klubeko presidenteak. Urteetako lanaren ondoria dela uste du: “Guri gozatzea egokitu zaigu”. Tabirako Baquoko gizonen biga-

rren taldeak Bigarren Nazional mailan jokatu du hurrengo denboraldian. Durangon lortu zuten igoera La Salle eta Escolapios taldeak mendean hartuta. Iaz ere liga txapeldun geratu ziren maila berean, eta ez igotzea erabaki zuten. Aurten erronka berriari adarretatik helduko diote: “Goragoko mailan lehia-tzeko desiratzen dagoen talde gazte eta konprometitua dugu. Gogotsu daude”.

Zegokion tokira

Gizonen lehenengo taldea finalerdietan kanporatu zuten Donostian jokaturako igoera fasean. EBA mailara igotzeko ametsak beste aukera bati itxaron beharko dio. Azpeitiko ISBren kontra bete-beteko partidua jokatu, eta azken unera arte aurpegia eman zuten: 72-69. Azken uneko hirukoa sartu izan balitz... Edozelan ere, iaz euren mailatik behera ibili ostean, Durangoko taldea dagokion tokira bueltatu da aurten: “Taldea

finkatzea lortu dute. Aurreko urteetan seriotasuna falta izan da. Aurten talde konprometitua lortu da eta txapela kentzeko moduko denboraldia osatu dute”. Hartutako bideari jarraipena ematea da hurrengo urratsa: proiektua egonkortzea.

Ondo errotutako zuhaitza

Emakumeak bigarren mailara igotzeko atarian geratu ziren Logroñon. Sekula etsitzen ez duten taldea direla erakutsi zuten beste behin, eta burua ondo goian dutela amaitu dute denboraldia.

Gainera, talde onena ez da egun bateko lorea. Azken urteetan goiko postuetan ibiltzera ohitu dira, eta aurtengoa dinamika positibo horren ondorioa izan da. Esperientziaren eta gatzetasunaren arteko oreka eman-korra aurkitu dute, eta harrobiko klub batentzat ez dago hori baino funtzionamendu hoberik.

Tabirako kluba Durangoko neskatoen lehen aukera da kirol bat aukeratzeko orduan. Mutiletan talde batzuk osatzeko arazoak izan badituzte ere, nesketan kontrakoa gertatzen da: eskaria eskaintza baino handiagoa da. Desoreka horrek bere ardurak eragiten dituen arren, oparotasuna kudeatzea gabeziari aurre egitea baino hobea da beti.

“Aurrera begira, badaude oinarriak proiektu polit baterako”



Mikel Larrañaga
Tabirako Baqué taldeko jokalaria ohia

Mikel Larrañaga (1986, Durango) gizonen talde nagusiko kapitainak saskibaloia utzi du. Bizitzako beste alderdi batzuei tokia egin gura die. Ikasketak burutzeko kanpoan emandako lau urteak kenduta, Tabirakori lotuta egon da umetatik. Jokalari eta harrobiko entrenatzaile, biak uztartu ditu urte askoan. Agur bat baino, gero arte bat da. Arnasa apur bat hartu ostean, entrenatzaile jarraitzea gustatuko litzaioke Tabirakon bertan, dena eman dion klubean.

Gazterik utzi duzu saskibaloia. Zergatik?

Gauza asko pilatzen dira. Bizitza aldatzen doa, saskibaloiak astean ordu askoko dedikazioa eskatzen du, asteburuak kanpoan... Konpromiso bat hartzen dudanean ehuneko ehun ematea gustatzen zait, eta ezin badut hobe da uztea. 21 urtean asteburuak okupatuta izan ditut, eta denbora libre gehiago behar dut bikotekideagaz egoteko zein beste afizio batzuei tokia egiteko: mendia, asteburu pasak...

Azken partidua igoera fase batekoa izan da.

Taldean eta klubean komentatu nuen, igoz gero, beste urtebetez jarraituko nuela. Orain lau-bost urte, EBA mailan egon ginenean, oso gustura aritu nintzen. Igoera fasekoa pena izan zen.

Zer falta izan zitzaizuen?

Finalerdian, partiduko une batzuetan zortzi-hamar puntugatik irabazten egon ginen. Orduan heldu ziren gure erabaki txarrak zein epaileen hala moduzko erabakiak. Azken laurdenean parekatzea lortu genuen eta... pena. Saskiratze batera geratu ginen.

Iaz irregular ibili ostean, aurten zer gertatu da itxura hainbeste aldatzeko?

Iaz Iskanderrek [De Dios, entrenatzaile] lehen denboraldia zuen, eta lehen urteko hainbat jokalaria genituen. Osagai denak behar den moduan uztartzea kostatu zitzaigun. Aurtengoa bigarren denboraldia izan da. Horrek lagundu egiten du. Gainera, Gabonak arte prestaketa fisiko berezia egin dugu, eta emaitzetan igarri da.

Proiektu egonkorra izan daiteke?

Aurrera begira, esango nuke badaude oinarriak proiektu polit baterako. Behetik datozenak ere baliozko jokalariek direla erakusten ari dira. Begira erregionalekoek lortu duten igoera.

Emakumeen taldeak urteak daramatza proiektu egonkorragaz.

Bai, aurten ere igotzeko zorian izan dira. Durangon jokaturako lauko finala ikusi nuen, eta, egia esan, Durangon sekula ikusi ez dena lortu zuten: kiroldegian hainbeste jende batzea, asko umeak, bizi izan genuen giroa... nik uste dut urte askotarako afizioa sortu zutela. Ume zein heldu, denok gozatu genuen. Urte asko daramatzate goi mailan. Zorionak eurei.

Datorren urtea zeuretzat hartuko duzu. Epe luzeagora begira, zer asmo daukazu?

Datorren urtean talderen bati laguntzen amaitzeko arriskua dut. Ezagutzen dut neure burua (barreak). Baina, bai, urte bat neuretzat gura nuke. Ostean, inguruko egoerak ahalbidetzen badit, entrenatzaile lez jarraitzea gustatuko litzaidake. Bost urtean kadeteekin ibili naiz, eta Espainiako txapelketa bitan parte hartu dugu. Azken urteetan, jokalaria moduan beste gozatu dut entrenatzaile moduan. Biak balantzan jarrita, aurrerantzean nire tokia entrenatzaile moduan dagoela uste dut.

Tabirakon bertan?

Bai, bai, Tabirakon. Horretan ez dut dudarik. Nire ibilbidean, beste talde batzuetan jokatzeke aukera izan dut, eta hemen jarraitzea erabaki dut. Hamar urte nituenetik Tabirakok eman didana ordaintzeko modurik ez dago. Ordaintzeko modu bakarra nire dedikazioa eskaintzea da: jokalaria lez orain arte, eta entrenatzaile lez aurrerantzean.

Harrobiko entrenatzaile ala zerbait gehiago?

Orain arte harrobian aritu naiz, eta asko gustatzen zait. Urte batzuetara, talde nagusiago bat entrenatzea gustatuko litzaidake. Erronka desberdina da. Tira, ikusiko dugu hemendik urte batzuetara non gauden.

40 urteko ibilbidea liga txapelketa bategaz ospatu du Anbotopeko saskibaloit taldeak

Denboraldi bereziari amaiera bikaina jarri diote Durangon, zaleen aurrean, igoera lortu ostean



Apirilaren amaieran egindako bazkarian oraingo eta lehengo jokalaria batu ziren.

> SASKIBALOIA J.D.

Anbotopeko saskibaloit taldeak 40 urte egin ditu aurten, eta urteurrena liga txapelketa bategaz ospatu dute. Durangoko Tabiran jokaturako azken fasean, Zamudio kanporatu zuten finalerdietan (82-68), eta finalean Sestao baino gehiago izan ziren: 78-55. Senda eta serio aritu ziren partiduetan, eta talde handiek erakusten duten nagusitasunagaz

irabazi zuten. Finalean Sestao hortzak erakusten saiatu zen aldi bakanetan, baina Durangoko taldeko Onaindia, Iparragirre edo Vazquezen saskiratzeek, besteak beste, urak bere bidera ekarri zituzten segituan. Anbotopekok aitzakiarik gabeko garaipena lortu zuten, eta etxean eta zaleen aurrean jaso zuten taldearen historia are gehiago aberasten duen garaikur berria.

Urteurren bazkaria

40 urteko ibilbidean jokalaria askok jantzi dute Anbotopekoren kamiseta, eta denen ahalegina gaz heldu da gaur egunera arte. Horrela, apirilaren azkenetan oraingo eta lehengo jokalaria batu zituzten: guztira, 72 lagun elkartu ziren Durangon. Taldea sortu zuten lagun batzuk izan ziren tartean. Sasoi batean Anbotopekok ema-

kumeen talde bat ere izan zuen, eta talde horretako jokalaria batzuek ez zuten hutsik egin hitzordura: "40 urtean jende asko igaro da taldetik eta gatxa da danekin hartuemanetan jartzeari, baina gehienak enteratu ziren, eta ahal zuena etorri zen. Oso egun polita igaro genuen", gogoratu du Gudiker Alberdi Anbotopekoko gaur egungo presidente eta jokalaria.

ADITUAREN TXOKOA

JUAN CARLOS PEREZ

Areto-futbola



Ze zaila den

2015/16 denboraldia amaitu da, baina norgehiagokei dagokionez bakarrik, klubaren jardunak aktibo jarraitzen du eta.

Oraingo denboraldiko balantzea egiteko ordua da: azken bederatzi hileetan zuzen egin dakoak zein akatsak ikertu, ondorioak atera, eta hurrengo denboraldia planifikatzen hasteko sasoia da.

Futbol 11n hori guztia egitea errazagoa ez bada, gutxienez ohikoagoa da taldeak hobeto egituratuta daudelako, eskola mailatik hasita kategoria denetan taldeak dituztelarik.

Durangaldeko taldeen zerrrendari erreparatuta, gehienak afizionatu mailan talde bakarra duten klubak direla egiaztatzen dugu. Beraz, jokalarien bajak ematen direnean, ordezkoak kanpoan aurkitu behar dira; hori oso zaila da batzuetan, eta, ondorioz, urterik urtera Bizkaian talde dezente desagertzen dira. Horrela, liga amaitu eta handik aste batzuetara, talde batzuek oraindik ez dute jakingo zein kategoriatan parte hartuko duten.

Eskualdean hiru taldek baino ez dituzte filial eta gazte mailako taldeak, eta horrek, hainbatetan, aurrera jarraituko dutenaren bermea eskaintzen die. Baina talde hauetako zuzendariak baino ez dakite ze zaila izaten den taldeak osatzeari. Futbol 11k konpetentzia gogorra eragiten du.

Gazteek Aduriz eta Muniaín izan gura dute. Areto-futboleko zein jokalaria izan daitezke? Nor ezagutzen dute? Bakadit errepikakorra naizena, baina Euskadik lehen mailan talderik ez duen bitartean, kontua oso zail dago.

**Erredakzioan itzulia*

Julen Ozaeta irabazle Europako Tontorretan

Bederatzi minututan hobetu zuen aurreko marka

> FUTBOLA J.D.

Julen Ozaetak (1986, Durango) Europako Tontorrek 32 kilometroko traila irabazi, eta aurreko marka 9 minututan hobetu du asteburuan.

Marka hobea lortuko zuen ibilbideko une batean galdu izan ez balitz. Lasterketako lehenengo erdia aldapa gora zen. Ozaeta bakarrik igaro zen tontorretik, hiru minutuko al-

deagaz. Gero, ibilbidetik irten, eta bidea aurkitu ezinik ibili zen. Ondorioz, bigarrenak alde dena jan zion.

Probako bigarren zatia elkarrekin egin zuten. Bost kilometroren faltan, Ozaetak eraso jo, aurrera egin, eta bakarrik helmugaratu zen: 3.23.49.

Datozen asteetan Euskadiko selekzioagaz Espainiako Kopako probetan arituko da.

Kadete mailako futbol torneoaren Berriz

Zortzi talde lehiatuko dira Berrizburu zelaian

> FUTBOLA J.D.

Berriz futbol klubak kadete mailako Berriz Cup torneoaren antolatuko du asteburu honetan. Zortzi talde lehiatuko dira: Gernika, Amorebieta, Getxo eta Bansander taldeak A multzoan, eta Eibar, Santutxu, Berriz eta Bermeo B multzoan.

Zapatu goizean eta arratsaldean ligaxkako partiduko jokatu dituzte Berrizburu futbol

zelaian. Berrizek, etxeko taldeak, hiru neurketa jokatu ditu bihar: 17:15ean Bermeoren kontra, 18:00etan Eibarren kontra, eta 20:15ean Santutxuren kontra.

Bihar sailkatzen diren lau taldeek domekan, 11:30ean, finalerdia jokatu dituzte. 13:00etan hirugarren eta laugarren postuak erabakiko dira, eta finala 13:45ean hasiko da.

Zalduak igoera lortu dezakete zapatuan

> FUTBOLA J.D.

Bizkaiko Maila Gorena emozioz gaineko heldu da azken jardunaldira. Sestaoko San Pedro, Zaldibarko Zaldia eta Larrabetzuko Uritarra 63 puntura berdinduta heldu dira azken jardunaldira. Aurreneko biak igoera postuan daude. Beraz, Zalduak

nahikoa du Uritarrak taldearen emaitza berdina lortzea mailaz igotzeko. Uritarrak eta San Pedrok elkarren kontra jokatu dute. Zalduak, berriz, Ugeraga liderra hartuko du Solobarrian zapatuan, 17:45ean. Ugeragak aspaldi lortu zuen Ohorezko Mailarako txartela.

Elorrio-Zornotza, herri artekoan aurrez aurre

Bietako batek agur esango dio bihar txapelketari

> PILOTA J.D.

Asteburuan Bizkaiko herri arteko pilota txapelketako final laurdenak erabakiko dituzte. Durangaldeak oraindik hiru herri ditu lehian, Elorrio, Zorno-

tza eta Abadiño, baina baliteke hurrengo faseko urratsa bakarrik ematea.

Alde batetik, Elorriok eta Zornotzak elkarren kontra dihardute. Joaneokan Elorriok

abantaila hartu zuen: 2-1. Gazte eta nagusien mailako partiduko irabazi zuten. Itzuliko jardunaldia zapatuan, 16:30ean, jokatu dute Zornotzan.

Abadiño 2-1 galdu zuen Sestaora egindako bisitan. Nagusietako erraz irabazi zuen (1-22), baina gainerako biak alde handiarekin galdu zituen: 22-6 kadeteetan, eta 22-12 gazteetan. Itzuliko jardunaldia zapatuan, 11:00etan, jokatu dute Abadiño, Zelaietako frontoian.



KAFE ANTZOKIA - MONTEVIDEO

Durangoko herrigunean

Energia eraginkortasun handiko etxebizitzak

Hiriko txaletak

Oiz mendira begiratokiak

Leku zabalak

**Etorri
ikustera!**

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

www.zarateyelexpe.com
Tel.: 946 816 673

Kontsultatu beste aukerak Iurretan, Elorrion eta Durangon

Pablo Berasaluze omentzeko pilota partidu profesionala jokatu dute, hilaren 27an

Berasaluzek Ibai Zabalgaz jokatu du; jaialdian zehar sorpresa bat baino gehiago prestatu dizkiote



Gaur aurkeztu dute Berrizko pilota jaialdia, Pablo Berasaluze eta Ibai Zabala bertan zirela.

> PILOTA J.D.

Berrizko Udalak antolatuta, Pablo Berasaluzeri omenaldia egingo diote, maiatzaren 27an. Pilota partidu profesional bi jokatu dituzte Olakueta pilotalekuan, eta horietako batean Berasaluze bera izango da protagonista. Jaialdian zehar “so-presak” izango dira Berrizko pilotariarentzat, Orland Isoird alkateak azaldu duenez: “Pablo-

ren goi mailako ibilbidea aitortu gura dugu, eta baita 1998an debutatu zuenetik Berriz herriaren izena zabaldu izana ere”. Berasaluzek esker oneko berbak izan ditu: “Ni pilotari moduan hemen sortu nintzen, eta nire ibilbideko azken txanpako egunik politena edo politenetakoa izango da. Urte asko joan dira Berrizen azkeneko jokatu nuenetik”.

Berasaluzek Berrizen jokatu

zuen azken aldia 2001eko apirilaren 21ean izan zen, Julian Albizuri berriztarraren debuteko partidua: Olaiola Iak eta Albizurik Berasaluze II eta Errandonearen kontra jokatu zuten.

Datorren barikuko jaialdiko partidu nagusian Berasaluzek Ibai Zabalgaz jokatu du. Bikote berriztarrak Danel Elezkanoren eta Alvaro Untoriaren kontra jokatu du. Zabalak

profesionaletan daramatzan urteetan Berrizen jokatu duen lehenengo aldia izango da. “Baneukan herrian jokatzeko gogoa”, dio. Berasaluzeren omenaldi partiduan parte hartzea “ohorea” dela dio: “Alde batetik, penatxoia dut hemendik apur batera ez delako gurekin jokatzen arituko, eta, bestetik, poza partidu honetan parte hartzeko ohorea dudalako”.

Barikuko jaialdia 21:00etan hasiko da. Lehenengo ekitaldiko laguntzaile izan den Oizpe pilota elkarteak pilota partidu bi antolatu ditu: nesken paleta gomako eta mutilen esku pilotako bana. Ostean, Agirrek eta Galarzak Arteaga II-aren eta Apraizen kontra jokatu dute.

Sarrerak gaur salgai

Sarrerak, gaur, maiatzak 20, 18:30etik 20:30era erosi daitezke udal pilotalekuan, 20 euroren truke. 250 bat sarrera jarriko dituzte salgai. Gaur denak saltzen ez badira, beste egun batzuetan ere eskuragarri jarriko dituzte.

Martinez Espainiako txapelkun errekorragaz

Heptatlonean eta F-40 mailan nagusitu zen



Begoña Martinez heptatloiko altura jauzian.

> ATLETISMOA J.D.

Begoña Martinez durangarra (Durango Kirol Taldea) urrezko domina bategaz eta urte askoan iraun dezakeen errekorragaz itzuli da Madrilen (Collado Villalba herrian) jokatu duen Espainiako txapelketatik. F-40 mailan estreinaldi ezin hobea izan du. Heptatloi probetan lortutako 4.340 puntuek lekutan utzi dute aurreko marka (3.582). Esaterako, 800 metroko pro-

ban erakustaldia eskaini zuen 2.51.54ko denbora eginda, eta ordura arteko marka txikitu zuen.

DKT taldeko beste atleta bi ere nabarmendu ziren, biak elorriarrak. Juan Jose Mendizabalek (M-75 maila) zilarrezko domina kolkoratu zuen jaurtiketen pentatloian. Modalitate berean, Eva Muñozak (F-45) brontzea irabazi zuen. Balio handiko domina da aurkariaren maila handia kontuan hartuta.

Euskadiko selekzioak titulua berri gura du, Durangon

> FUTBOLA J.D.

Durango Tabira futbol zelaia 16 urtez azpiko selekzio autonomikoen azken fasea hartuko du asteburuan. Lau selekzio sailkatu dira fase hau jokatzeke: Euskadi, Aragoi, Madril eta Valentzia. Euskadi da gaur egungo txapelketa. Iaz Andaluzian jokaturako azken fasea irabazi zuen.

Gaur, maiatzak 20, finalerdiak jokatu dituzte. 16:30ean Aragoi eta Madrilgo selekzioek neurtuko dituzte indarrak. Segidan, 18:30ean, Euskadik Valentziaren kontra jokatu du. Domekan, 12:00etan jokatu dute finala. Nafarroa, Gaztela Mantxa, Andaluzia, Asturias eta Melilla baino gehiago izan da Euskadi aurrefase bietan.

Javier Elorriaga omendu dute Abadiño proban



Javier Elorriagari egindako omenaldiko une bat. M.Zuazubiskar

AGENDA

> FUTBOLA

MAILA GORENA

Zaldia - Ugeraga

· Zapatuan, 17:45ean, Solobarrian.

Abadiño - Baskonia B

· Barikuan, 19:00etan, Astola futbol zelaian.

> ARETO-FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Elorrioko Buskantza B - Gora Bilbo

· Zapatuan, 18:00etan, Elorrioko kiroldegian.

Mallabia Seguros Altaldia - Miranda

· Zapatuan, 18:00etan, Zaldibarko kiroldegian.

Sasikoa Durango - Scalibur

· Zapatuan, 18:00etan, Landako kiroldegian.

> PILOTA

BIHARKO IZARRAK

- Larrañaga - Alduntzin / Olano - Lasa

- E. Labaka - Erasan / Prieto Medina

· Zapatuan, 17:00etan, Mallabiko pilotalekuan

- Errandonea - Mateo / Prieto - Urizar

- A. Etxebarría - Otadui / Olano - Olaiola

· Eguenean, 21:15ean, Mallabiko pilotalekuan.

MASTER KAIOLA

- Larrañaga-Urrejola

- Rodrigo-Elorriaga

- Zubeldia-Elorriaga

- Zabala-Basabe

· Barikuan, 18:30ean, Zornotzan.

- Biscoubi-Ruiz Larramendi

- Errandonea-Mediavilla

- Canabal-Zubeldia

- Irurita-Pagaza

· Zapatuan, 18:30ean, Zornotzan.

- Petite-Arrasate

- Eguen-Arrizabalaga

- Bakaikoa-Unanue

· Domekan, 10:30ean, Zornotzan.

> TENISA

Mallabiko XIV. Tenis Txapelketa

Noiz: ekainaren 6tik uztailaren 8ra

Izen-ematea: Ekainaren 1era arte (669 028 718) Bazkideek 6 euro; bazkide ez direnek 12 euro

> TXIRRINDULARITZA J.D.

Joan zen asteburuan kadete mailako txirrindularitza lasterketa lehiatu zuten Abadiñon. Iaz lehenengoz antolatu zuten proba horrek Javier Elorriaga izena darama. Elorriaga Abadiñok eman duen txirrindularirik handienetakoa da, eta txirrindulari zela izandako ibilbideagatik zein ostean txirrindularitzari emandako laguntzagatik omendu egin zuten. Elorriaga 70eko hamarkadan profesionala izan zen, eta bere ibilbidean 40 etapa garaipen lortu zituen. Esaterako, Espainiako itzuliko etapa bi irabazi zituen, eta 1975ean zilarra jantzi zuen Espainiako txapelketan.

ALKIMAX

Alquilamos soluciones



ARE-MAKINA

**SASI-GARBITZEKO
MAKINA
HORZDUNA**

PRODUKTU BERRIAK

**MINIHONDEATZAILEA
1000 KG
ZABALERA 0,80**

**BELDAR-MINI
DUMPERRA**



Eitua industriagunea, 71C • BERRIZ • 946 824 550
Goiko Ibarra, 26 (Eroski ondoan) GERNIKA • 946 271 310
alkimax@alkimax.net

www.alkimax.net



Inmobiliariak

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1.º ezk. • 48200 DURANGO
Tel.: 946 813 562

ETXEBITZAK ALOKAIRUAN

DURANGO. Bat, bi eta hiru logelako etxeak alokairuan. Hilean 550€-tik hasita.

ETXEBITZAK SALGAI

DURANGO. Tabirakalea. 3 logelako etxea, komuna, sukaldea, egongela, dena kanpora begira. Eta garaje itxia.

DURANGO. Errotaritxueña Atiko zoragarria 3 logela, bi komun, bi terraza zabal, sukaldea, egongela, dena kanpora begira, eta garaje itxia lau kotxe sartzeko. Ikusgarria.

DURANGO. Francisco Ibarra. 4 logelako etxebizitza, 2 komun, sukaldea, egongela balkoiarekin eta despentsa.

ATXONDO. 3 logelako etxebizitza, komuna, sukaldea, egongela, dena kanpora begira, hiru balkoi. Horrez gain, garaje itxia.

ELORRIO. 4 logelako etxebizitza, egongela, sukaldea balkoiarekin, komuna, eta garajea itxita.

DURANGO. -Kalebarria, 3 logelako etxebizitza, sukaldea, egongela, eta komuna. 120.000€.

DURANGO. ARTEKALE. Azken etxebizitza, bikoak, trastelekuarekin. Prezioak 165.000€-tik hasita.

LEKEITIO. 3 logelako etxebizitza, komuna, sukaldea, egongela terrazarekin, garajea. Urbanizazio pribatu baten barruan, igerileku eta frontoiarekin.

ABADIÑO. Aita Letona. Etxebizitza ederra 2 logelarekin, komuna, sukaldea, egongela, garajea eta trastelekua.

ABADIÑO. Iturritxo. Logela bateko apartamentua, sukalde amerikarra-egongelarekin, komuna, esekitokia, ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.

DURANGO. ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 komun, sukalde amerikarra, egongela, garaje itxia eta terraza ikaragarria.

ATXONDO. Etxebizitza 2 logelarekin, komuna, despentsa, sukaldea esekitokiarekin, eta egongela.

ZALDIBAR. Etxebizitza, 3 logela, komuna, sukaldea, egongela balkoiarekin, guztiz berriztatua. Horrez gain, trastelekua.

LURSAILAK SALGAI

ABADIÑO. 1.000 m2-ko lursaila salgai, bifamiliarra eraikitze baimenarekin. Zonalde egokia.

BERRIZ. 10.000 m2-ko lursaila. Zelai ederra sarbide oso onarekin.

IURRETA. 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukera dago. Sarbide onarekin.

ABADIÑO. Bifamiliarra eraikitze lursaila, 1.000 m2. Informazio pertsonalizatua.

AMOREBIETA. EUBA. Txalea bifamiliar bat eraikitze lursaila, 3.000 m2 inguruko azalerarekin.

AMOREBIETA. LARREA. 27.000 m2-ko lursail ederra, dena partzela bakarrean.

BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

ABADIÑO. GAZTELUA. Baserririk ikusgarria, arku eder batekin sarreran, ekialdera begira, 20.000 m2-ko lursaila baserriaren ondoan.

BERRIZ. Txalea 1.200 m2-ko partzelan, Abeletxe kalean. Hegoaldera begira. 4 logela, 3 komun, sukaldea, egongela, eta garajea.

ATXONDO. Baserririk ikusgarria Martza auzoan, 15.000 m2-ko lursaila baserriaren inguruan. Teilatu berria. Zonalde pribilegiatua.

BERRIZ. Bº Murgoitio. Bifamiliar ederra salgai. 6 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 6 komun, garaje bikoitza, 12.000 m2-ko lursaila. Kokapen ezin hobea, Anbotora begira.

MENDATA. Lamikiz auzunea. Baserririk bifamiliarra berriztatuko. Orientazio pribilegiatua, oso eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO. Eraikin atxiki ederra, izkina, guztiz hornitua. Ia berria, estreinatze.

BERRIZ. Baserririk ederra, Murgoitio zonaldean. Egokia landa-turismorako, landetxea. Ikuspegi ezin hobea.

ISD Inmobiliaria del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

ETXEBITZAK SALGAI

ASKATASUN ETORBIDEA



• Etxebizitza salmentan. Guztia jarrita. 3 logela, egongela, sukaldea jarrita esekitokiarekin, despentsa, 2 komun, 2 balkoi. 9 m2-ko ganbara, eta garajea. Bigarren garaje tokia izateko aukera. **259.000€.**

MARTXOAREN 8ko



• Oso egoera onean dagoen etxebizitza. 3 logela, egongela sukaldea jarrita, esekitokia, 2 komun, eurretako bat leihoarekin, ganbara eta garajea. **250.000€.**

ANTSO ESTEGIZ



• 101 m2 erabilgarri. Berriztatze. 3 logela, egongela handia eta balkoia hegoaldera begira. 2 komun, sukalde handia. Igogailua eta ganbara. **181.000€.**

ANTSO ESTEGIZ



• 4 logelako etxebizitza, egongela, sukaldea jarrita, komunarekin. Berogailua gas naturalarekin. Bizitzera sartzeko. **139.000€.**

JUAN MARI ALTUNA



• Logela bat, egongela, sukaldea (jarri gabe) eta komuna. Guztia berriztatua. Berogailua, leihoak, lurra, argindarra... Etxe guztia kanpora begira. **129.000€.**

ZALDIBAR



• 74 m2 ERABILGARRI. 3 logela, egongela, sukaldea jarrita, komun bat eta balkoia. Berriztatua. Berogailuarekin. Oso egoera onean. **120.000€.**

www.inmoduranguesado.com

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

ETXEBITZAK SALGAI

MATIENA



• 4 logela. Komuna. Sukaldea. Despentsa. Egongela terrazarekin. Garajea aukeran. **155.000€** negoziagarria.

IURRETA. K/ ELIZALDIE



• BERRIA, ESTREINATZEKO. 100m2. 2 logela. 2 komun. Sukaldea. Esekutokia. Egongela terrazarekin. Ganbara eta garajea itxita. **245.000€.**

TABIRA



• 3 logela. 2 komun. Egongela terrazarekin. Sukaldea eta esekitokia. Ganbara. Garajea. Eguzkitsua. **298.000€.**

MURUETA TORRE



• 134 m2. 4 logela. 2 komun. Sukalde-jangela. Egongela terrazarekin. Ganbara. Bi garaje toki. Eguzkitsua. **300.000€.** Negoziagarria.

KURUTZIAGA



• 80m2. 3 logela. Komuna. Sukaldea eta egongela. Balkoia. **130.000€.**


F.J. ZUMARRAGA



• 100m2. 4 logela. 2 komun. Sukaldea. Egongela. Ganbara eta garajea. **236.000€.**

LOKALAK ETA ETXEBITZAK ALOKAIRUAN. KONTSULTATU.
www.inmoetxetxo.com

**ALOKAIRUAN
ETA SALGAI DITUZUN
HIGIEZINEN BERRI
EMAN NAHI
AL DUZU?**



**Anbotok tarte hau
eskaintzen dizu**

Informazio gehiagorako:
Tel.: 946 217 902
publi@anboto.org

anboto.**iragarki**laburrak.com

1 HIGIEZINAK	5 IBILGAILUAK
2 TEKNOLOGIA	6 HARREMANAK
3 LANA/NEKOZIOAK	7 ASIA/KIROLA
4 DEHETARIK	8 FAMILIA/ETXEA

Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzat - Erregistratu www.anboto.iragarkiaburmak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio eta bertan anboto aukeratu) edo bidali mezuaz: anboto@anboto.org.

Paperean, ordainduta: Enpresentzat - Iragarki laburretatik bereztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonon.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

SALDU

Mallabia. Aukerakoa, nekazaritzarako edo nekatzaritza-turismorako, toki eguzkitsu eta ederrean, 20.000 m² lursail. Prezio egokia, ikusi nahi baduzu, deitu. Tel.: 655-70 26 47 (19:00-21:00). Nahi izanez gero, aukera dago lursail gehiago eskuratzeko.

ERRENTAN EMAN

Berriz. Pisua alokagai Berrizen. 3 logela. Tel.: 639-42 54 43.

ERRENTAN HARTU

Elorrio. Familia batek Elorrion edo inguruan etxebizitza errentan hartuko luke. Tel.: 685-72 01 42.

OPORRETAKO ETXEBIZITZAK

ERRENTAN EMAN

Oropesa de Mar (Castello). Oropesa de Marren (Castello) apartamentua alokagai ekainean, uztailan, abuztuan eta irailean. Hondartza aurrean. Inguru pribatua aparkalekuarekin, gune berdearekin eta igerilekuarekin. Tel.: 616-09 04 69/946-20 32 33.

PISUA KONPARTITU

PISUKIDE BILA

Berriz. Gela bat alokatzen da. Erdi-erdian. Autobus eta tren geltokietatik bi minutura. Tel.: 600-37 04 71/615-75 21 36.

Durango. Logela alokagai Durangon. Tel.: 673-68 97 69.

GARAJE / TRASTEROAK

SALDU

Otxandio. Otxandion garaje itxia salgai. Tel.: 675-71 72 93.

Durango. Durango erdian, Plateruen plazan garaje bat alokatzen da. Tel.: 656-78 02 15.

GAINERAKOAK

ERRENTAN EMAN

Berriz. Berrizen pabilioi bat alokatzen da. 2 solairu ditu, bakoitzak 330 metro karratu. Argia eta ura. Bide errean, autobidetik 5 minutura. Tel.: 656-73 81 88/616-17 71 91.

Lana - negozioak

LAN ESKARIAK

OSTALARITZA

Durungaldea. Elikagai manipulatzaile karneta eta garbitzaile ziurtagiria duen neska euskalduna lan bila dabil jantoki eta garbiketa lanetan aritzeko. Ordutegi malgua. Tel.: 673-68 97 69.

Durungaldea. Lana bilatzen nabili sukaldeko laguntzaile moduan. Barruko langile moduan ere bai. Tel.: 663-98 37 78.

ETXEKO LANAK

Elorrio. Emakume arduratsuak etxeoko lanak egiteko eskaintzen du bere burua. Esperientzia handia. Erreferentziaduna. Tel.: 688-92 75 58. Posta: juliachans67@gmail.com.

PERTSONAK ZAINDU

Durungaldea. Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Garbiketan ere jarduten dut. Kanpoko langilea. Esperientziarekin. Erreferentziak ditut. Tel.: 631-94 04 03.

Durungaldea. Pertsona nagusiak zaintzen edo sukaldean lan egin nahi dut. Tel.: 631-12 70 29.

Durungaldea. Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Kanpoko langilea edo orduka. Tel.: 632-10 40 68.

Durungaldea. Lan bila nabil barneko zein kanpoko langile moduan, orduka eta asteburuetan ere bai. Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Garbiketan ere jarduten dut. Esperientziagaz. Tel.: 619-38 47 38.

Durungaldea. Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Garbiketan ere jarduten dut. Kanpoko langilea. Esperientziarekin. Erreferentziak ditut. Tel.: 631-51 28 21.

Durungaldea. Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Garbiketan ere jarduten dut. Barneko langilea. Gaietan ere bai. Tel.: 619-38 47 38.

Durungaldea. Lan bila nabil, nagusiak edo umeak zaintzen. Barneko edo kanpoko langilea. Baita orduka ere. Tel.: 628-00 22 17.

Durungaldea. Neska arduratsua ekainean eta uztailen umeak zaintzeko lan bila, goizez zein arratsalde. Tel.: 688-66 11 78.

Durungaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Garbiketan ere jarduten dut. Tel.: 632-16 37 82.

Durungaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Esperientziaduna. Barneko langilea zein orduka. Tel.: 633-80 89 31.

Durungaldea. Pertsona nagusiak zaintzeko prest dagoen gizon bat naiz. Barneko zein kanpoko langilea. Orduka ere bai. Tel.: 612-48 14 70.

Durungaldea. Neska arduratsua prest dago pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko. Barneko zein kanpoko langilea. Esperientziaduna. Tel.: 602-32 06 50.

GAINERAKOAK

Durungaldea. Emakumea lan bila dabil zuzendaritzako idazkari diplomarekin. Hizkuntzak: arabiera, ingelesa, frantsesa eta gaztelania. Turismoan esperientziaduna. Pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko prest. Garbiketan ere jarduten dut. Tel.: 602-56 36 53.

Durungaldea. Lan egiteko prest nago, edozein sektoretan. Tel.: 663-98 37 78.

Durungaldea. Web orrialdeak egiten dira. Esperientziaduna. Zenbait hizkuntzatan. Kontsultatu. Tel.: 679-38 23 69/ 649-31 45 48.

Durungaldea. Gizon arduratsua lan bila dabil eraikuntzan eta soldataile moduan. Baserrian edo lorezaintzan ere jarduteko prest. Esperientziagaz. Tel.: 674-90 14 38.

LAN ESKAINTZAK

ETXEKO LANAK

Berriz. Berrizen etxeko lanak egiteko pertsona baten bila gabilta. Kotxea beharrezkoa da. Deitu edo idatzi: 653 728 187.

Zaldibar. Zaldibarren laguntzaile pertsonala behar da herrira etorritako pertsona bati laguntzeko. Hiru ordu astelehenetan eta ordu bi eguenetan. Kontratuarekin. Tel.: 690-28 60 71. Posta: elorrixak@yahoo.es.

IRAKASKUNTZA

Durango. Batxilergoko ikaslea naiz eta prest nago Lehen Hezkuntzako zein DBH 1, 2 eta 3ko ikasleei klase partikularrak emateko. Tel.: 688-66 87 68.

Otxandio. Otxandion klase partikularrak ematen dira, Lehen Hezkuntza eta DBH. Asteazehar, arratsaldeak. Tel.: 662-00 14 77.

GINERAKOAK

Durungaldea. Neska euskalduna, psikologoa eta 3. adinekoekin esperientziaduna. Estimulazio kognitiboa eta familiari laguntza psikologikoa edota formakuntza. Arratsaldetan paseotxo bat emateko ere prest dago. Tel.: 679-38 23 69.

Denetarik

SALDU / EROSI

Latxa arrazako aharia salgai. Latxa arrazako aharia saltzen dut. Hiru urte. Tel.: 946-21 82 57.

Aisia - kirola

OPORRAK/BIDAIAK

SALDU

Karro-denda saldu nahi dut. Elorrión karro-denda saldu nahi dut. Ondo zaindua. Bi logela eta abantzea dauzka. Precio ona. Tel.: 678-35 16 62.

GINERAKOAK

SALDU

Elektroestimulagailua salgai. Elektroestimulagailua S6 saltzen dut. Ia berria. Tel.: 630-98 50 56.

Familia - etxea

ETXERAKO TRESNAK / ALTZARIAK

SALDU

Frijigailu dietetikoa saltzen dut. Frijigailu dietetikoa saltzen dut, estreinatu gabea. Freimatic markakoa da. Tel.: 630-98 50 56

GINERAKOAK

AURKITU

Txoko bila. Txoko familiar baten bila Durungaldean. Tel: 688-92 41 17.

EMAN

Txakurkumeak erregalatzen dira. Tel.: 626-28 65 23.

Albisteak eta agenda,
bizkor eta eskura.

Telefono gida osatuna:
zuzenean deitzeko aukera.

Parte hartu, galderak eginuz, erantzunak lortuz.

Pertsonalizatu, zure herria aukeratuz.

DESKARGATU DOAN !



**ATXONDOKO UDAL
IGERILEKUETAKO TABERNA
KUDEATZEKO LEHIAKETA
BIGARRENEZ ZABALIK**



IRAGARKIA

Ordaindu beharreko gutxieneko errenta:
uda osorako 200€
Eskaintzak aurkezteko azkeneko eguna: ekainak 3.
Argibide gehiago udal bulegoetan
eta www.atxondo.net orrian.

Atxondo, 2016ko maiatzaren 20a

AGENDA

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



Maiatzaren 27an, 22:00etan, Berrizko Kultur Etxean

Autumn Commets

Autumn Comets talde madrildarra izango da Berrizko Tren Geltokiko Musikariak zikloaren barruko aurtengo azken gonbidatua. ‘You are here/We are not’ diskoa aurkeztera etorriko dira, taldearen laugarren lana. Urte hasieratik dabilta Estatu hainbat hiriburutan biran, eta, momentuz, hitzartuta dituztenetatik azken kontzertua izango da Berrizkoa.



:: DURANGO | ZUGAZA

X-Men. Apocalipsis

- **barikua 20:** 19:30/22:00
- **zapatua 21:** 16:30/19:30/22:30
- **domeka 22:** 16:30/18:45/21:30
- **astelehena 23:** 18:30/21:00
- **martitena 24:** 20:00

Trumbo

- **barikua 20:** 22:00
- **zapatua 21:** 19:30/22:30
- **domeka 22:** 18:45
- **astelehena 23:** 18:30/21:00
- **martitena 24:** 20:00

Mayo de 1940

- **barikua 20:** 19:30
- **zapatua 21:** 20:30
- **domeka 22:** 19:30/21:30
- **astelehena 23:** 18:30
- **martitena 24:** 20:00

Feliz día de la madre

- **barikua 20:** 22:00
- **zapatua 21:** 22:30
- **domeka 22:** 21:30
- **astelehena 23:** 21:00

Angry birds

- **barikua 20:** 19:30
- **zapatua 21:** 16:30/17:00/18:30
- **domeka 22:** 16:30

:: ELORRIO | ARRIOLA

La gunguna, una de canallas

- **zapatua 21:** 22:00
- **domeka 22:** 20:00
- **astelehena 23:** 20:00

:: ZORNOTZA | ZORNOTZA ARETOA

La noche que mi madre mató a mi padre

- **zapatua 21:** 19:30/22:00
- **domeka 22:** 20:00
- **astelehena 23:** 20:15

Angry birds

- **zapatua 21:** 17:00
- **domeka 22:** 17:00



Antzerkia

:: DURANGO

MAIATZAREN 20an (22:00etan) eta 21ean (20:00etan)

‘Eragion-k sokari’, San Agustin kulturgunean.

:: ZORNOTZA

MAIATZAREN 20an

20:00etan, ‘Amour’, Zornotza Aretoan.



Erakusketa

:: DURANGO

MAIATZAREN 29ra arte

Alberto Palomeraren ‘Observo y experimento, Arte eta Historia Museoan.

:: ELORRIO

MAIATZAREN 31ra arte

Durangaldeko mapak, Iturri kultur etxean.



Jaiak

:: ABADIÑO (ZELAIETA)

MAIATZAREN 20an

19:00etan eta 20:30ean, ‘Tipula’ ikuskizuna, frontoian.

22:30ean, Kepa Junkera & Sorginak, probalekuan.

MAIATZAREN 21ean

11:00etan, Gazteluarako Kronoigoera, Kanposantutik Gaztelutontorrera.

14:30ean, paella erraldoia, Ferialeku plazan.

18:00etan, San Trokaz txapelketako haurren finala, frontoian.

18:00etan, Luhartz taldeagaz erromeria, Txanporta plazan.

20:00etan, parrillada, Txanporta plazan.

23:00etan, Han, Kometa eta KOP kontzertuan, Txanportan.

MAIATZAREN 22an

11:00etan, Jolas erraldoiak eta tailerrak, Ferialeku plazan.

13:15ean, Jaizale txistulari elkarte eta Done Zezili abesbatza.

17:00etan, kalejira Talde Batuak taldeko umeekin.

18:30ean, Sugarri fanfarrea, Txanporta plazan.

19:00etan, Txokolatada, Txanporta plazan.

20:00etan, Gerbasi agurra.



Musika

:: BERRIZ

MAIATZAREN 20an

22:00etan, Mikel Uraken, Kultur Etxean.

MAIATZAREN 27an

22:00etan, Autumn Comets, Kultur Etxean.

:: DURANGO

MAIATZAREN 22an

18:30ean, Euskal kantu txapelketa, Plateruenean.

:: ELORRIO

MAIATZAREN 21ean

18:30ean, Musika eskolako ikasleen kontzertua, Arriolan.

:: MAÑARIA

MAIATZAREN 21ean

19:00etan, Kirikiño, Andra Mari eta Ahots Zuriak abesbatzak, Andra Marian.

:: ZORNOTZA

MAIATZAREN 21ean (EHko Batukaden Topaketa)

10:30ean, txupinazoa, Zubiondo plazan.

11:30ean, tailerren hasiera (Beat box, dantza afrikarrak eta bodypercussion).

13:30ean, poteoa Burrumba elektrotxarangak girotuta.

15:00etan, herri bazkaria.

16:30ean, zumba saioa.

18:00etan, batukaden kalejira.

20:00etan, ekitaldi nagusien hasiera.

22:00etan, Irtenbide + Los Zopilotes Txirriaos.

MAIATZAREN 22an

12:15ean, Argixe Hirukotea, Boroako San Pedro basilizan.



Berbaldia

:: ELORRIO

MAIATZAREN 25ean

19:00etan, ‘Las mujeres exiliadas: un camino lleno de violencia?’, Trinidad Vicente eta Maryan Fathiren eskutik, Iturri kultur etxean.



Dantza

:: BERRIZ (Umeen dantzari eguna)

MAIATZAREN 22an

11:30ean, kalejira.

17:00etan, Alardea, Olakueta plazan (euria egiten badu, kiroldegian).

:: DURANGO

MAIATZAREN 27an

22:00etan, ‘El cielo ahora’, Arriolan.

VII. BERRIZKO MARTXA ZIKLOTURISTA

EKAINAK 5 9:00an udaleixean

Federatze gaitzek 25€ *
Auzoketza 10€

2016 / 184€
* Web bidez *

* Federatzeak 15€
Baserriko Berrizko Zikloturista Federazioak 10€

120 kms

www.berrizbizikletarielkartea.com

> **BOTIKAK**

BARIKUA, 20 09:00-09:00 Campillo Montevideo etorb. 24 - Durango Melero, Rosa Mari San Pedro 31 - Zornotza 09:00-22:00 Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza ZAPATUA, 21 09:00-09:00 De Diego Intxaurrondo 22. - Durango 09:00-13:30 Campillo Montevideo etorb. 24 - Durango Gaztelumendi J.A. Abasolo 2 - Durango De Diego Intxaurrondo 22. - Durango Sagastizabal Askatasun etorb. 19 - Durango Eguren, Isabel Trañabarren 15 - Abadiño Bartolome Gabiola 2 - Berriz Balenciaga Ezkurdi plaza 8 - Durango Unamunzaga Muruetatorre 2C - Durango Larrañaga-Balentiaga Berrio-Otxoa 6 - Elorrio Melero, Rosa Mari San Pedro 31 - Zornotza 09:00-14:00 Irigoien Bixente Kapanaga 3 - Iurreta	09:00-22:00 Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza DOMEKA, 22 09:00-09:00 Gaztelumendi J.A. Abasolo 2 - Durango Melero, Rosa Mari San Pedro 31 - Zornotza 09:00-22:00 Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza ASTELEHENA, 23 09:00-09:00 Bazan Diaz Uribarri 5 - Durango Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza MARTITZENA, 24 09:00-09:00 Irigoien Bixente Kapanaga 3 - Iurreta Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza EGUAZTENA, 25 09:00-09:00 Unamunzaga Muruetatorre 2C - Durango Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza EGUENA, 26 09:00-09:00 Sagastizabal Askatasun etorb. 19 - Durango Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
--	---

> **ZORION AGURRAK**

✉ zorionak@anboto.org
eguztieneko 14:00ak arteko epea



> Maiatzaren 25ean **Unaxe** 4 urte beteko ditu. Zorionak familiaren partez, eta oso ondo pasau urtebetetze egune.



> Zorionak, **Unai**, eta egun on-ona pasa deizule! Musu handi bat aitaren, amaren eta Elenen partez.



> Durangoko neska politenek 8 urte beteko dituzte maiatzaren 22 eta 23an. Zorionak, **Lucia** eta **Leire**, zuen familiaren eta lagunaren partez.



> Maiatzaren 18xen, gure etxeko printzesiek 7 urte bete dauz. Zorionak etxeko danon partez!



> Gaur, maiatzaren 20an, **Ekhik** urte bat bete du! Zorionak eta moxu handi-handi bat etxekoen partez!



> Zorionak, Txapeldun! Hiru urte egingo dozuz martitzenean. Mosu handi pillo bat Izei, Ama eta maite zaituen danen partez.



> Iurretako jubilatuek Lourdesera (Frantzia) bidaiatu dute.



Ermodo, 11 - DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
f Gozatu Gozategia

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean tarta batzotz egingo dugu. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturakodatuak zorion agurrekin batera.



lagunak@anboto.org
Tel.: 946 816 558
www.anboto.org



Andaluziara edo Costa Doradara bidaia irabazi ezazu Anbotoren Lagun eginez

Anboto Lagunen artean lau pertsonentzako (2 heldu + 2 ume) astebeterako bidaia zotz egingo dugu uztailaren 15ean

“Mexiko ez dira telenobelak, ez gara bizi dramekin”

Garai oso herri polita dela dio Mexiko D.F.-n jaiotako gazteak, baina, “egonaldi labur baterako”

➤ **AKUILUA** Aitziber Basauri lazko otsailetik Garain bizi da Bego Aldekhoa. Ez zuen lehenengo aldia. Izan ere, hiru urte lehenago, European zehar oportetan ibili zen lehengusina bategaz, eta Garaira ere etorri ziren. Euskal Herrira bueltatzeko gogoa sortu zitzaion, eta izebaren etxean dago. Euskal Herrian familia zabala du aitaren aldetik: amama Lizarrakoa zen, eta aitita Zeberrikoa. Oso pozik dagoela dio.

Mexikora bueltatuko zara?
Ez daukat argi zer egingo dudan. Gelditzeko gogoa dut batzuetan, besteetan ez. Mexikon nutrizioan lizentziatua naiz, eta maisutza egitea zen asmoa. Askok pentsatu gabe, abenturan etorri nintzen! Baina ohartu nintzen ikasle lan egin behar nuela. Nutrizio organikoan lanbide-gradua amaituko dut orain, eta bueltatu ala ez erabakiko dut. Dena den, beti

egongo da aukera hara joateko edo handik etortzeko.

Espero lakoa da inguru hau?
Ez da berdina oportetan egotea edo bertan bizitzea. Oso handia da Mexiko. Hiriburua munduko handinetakoa da, eta, Veracruz eta Boca del Rion —ondo ondoan daude— 500.000 laguntik gora bizi dira. Bilbo bera hiri txikia da, oso kontzentratua. Hasieran, polita da balkoian gosaltzea, mendiei begira. Bai-

na Durangora jaisteko premia izan dut gerora. Bizi guztia ez dudala Garain egingo argi dut!

Zerikusirik ez Veracruzekin!
Garai herri oso polita da, baina egonaldi labur baterako. Izaera kontua ere bada: izeba Mexiko D.F.-tik etorri zen, eta hasieran zarataren falta sumatzen bazuen ere, orain ez luke aldatuko.

Ez zara maila horretara heldu.
Ez! Eta gogorik ere ez! (barrez). Nik asko disfrutatzen dut zarata, jendea, jatetxeak, etxetik irteten eta denda bat, eta beste bat topatzea... Hiria gurutzatu eta ikusi ohi ez dituzunak ikustea.

Bizimodua ere bestelakoa da.
Bai. Gaztea naizen aldetik, gau-giroan sumatu dut: poteoa da ohikoa hemen. Taberna batean sartu, eta hantxe geratzen gara Mexikon; lagun talde osoaren artean botila bat hartzen da, bertan edateko. Eta pintxo edo mokau bat hartzea ez da hain ohikoa. Telebista ere desberdina da; telenobelaren kultura dago gehiago. Bestalde, baliteke hemen jendea itxiagoa izatea, hotzagoa. Maitasuna erakustekoak ez dira. Baina, ez gaitezen topikoetan jausi! Euskaldunak ez dira *Ocho apellidos vascos* eta Mexiko ez dira telenobelak, ez gara bizi dramekin.

‘Koadrila’ ere baduzu.
‘Koadrila’ esatea kostatzen zait

oraindik, baina, bai. Zortea izan nuen. Nobedadea nintzen, mexikarra nintzelako ere bai. Lankide baten bidez ezagutu nituen. Bera ez zen asko irteten, baina nik irteten egin gura nuen. Denetara animatu naiz eta, azkenean, *whatsapp* taldean sartu ninduten. Ofizialki koadrilakoa naiz harrezkero (barrez).

Zerk deitu dizu atentzioa?
Bilbo gustatzen zait asko. Ahal badut, egunero joaten naiz. Bizitza handia dago; baita Durangon edo Zornotzan ere. Hemen, batez ere eguzkia irteterakoan, denak irteten dira kalera. Elkar ezagutzen dute, elkar bizi, hori asko gustatzen zait.

Eta ohitu zara klimara
Elurra egin zuen etorri nintzeanean. Biharamunean dena zuri ikustean, itzela izan zen. Umetxo ematen nuen. Aurten ere ilusio handia nuen! Azkenean, berriro elurra ikusi gura nuela-eta, Urkiola joan nintzen, lo-batxoekin. Klimara ez naiz guztiz ohitu, baina, banabil ohitzen. Termikoa jarrita bizi nintzen; maiatzean ere. Bero itzela egiten du Veracruz; ez egunero, baina, 48 gradu arteko beroak egon daitezke.

Euskal Herritik zer gustatu zaizu gehin?
Europa moduan bizi izan dut esperientzia hau, eta hori gustatu zait gehien, European dagoela. Bidaiatzeko aukera izan dut: ez gura beste, baina bai ahal izan dudana guztia. Jatekoa ere izugarri gustatu zait; kiloak hartu ditut, baina, pozik! (barrez).

LAUHORTZA

ANDONI BARREÑA
Irakaslea



500€uroko isuna berriztarra izatearren

Bai, halaxe da! 4.000 berriztarrek 500na euro jarri beharko dugu Epaitegi batek Berrizko Udalari jarritako isuna kitatzeko.

Nonbait, 2003an Berrizko Udalbatzarrek Abaroa enpresari eman zion udal-esleipena herri-lurretan etxeak eraikitze, nahiz Abaroak ez aurkeztu beharrezkoak ziren agiriak, nahiz Euskadiko Kontu Epaitegiak prozesuan zehar behin baino gehiagotan ohartarazi esleipena ez zela egokia. Hori EAJk gehien-go absolutua zuenean.

Enkantera aurkeztutako beste enpresak muturrera eroan du bere eskubidea, eta arrazoia eman dio Epaitegiak. Orain, 1.823.525€ kaltetan ordaindu behar dio Berrizko Udalak eta, horrez gain, zenbait epai-kostu eta interes ere.

Honen aurrean isiltasuna da nagusi, salbuespenak salbuespen. Berriztar asko prest ei da dirua jartzeko. Erantzule politiko eta administratiboak isilik, eta erantzukizunik bereganatu barik. Euskadik munduko kudeatzaile onenak dituela aldarrikatzen dutenek, bitartean, Gasteizko Udaleko kudeaketa-tik Marotori eta Alonsori jarri dieten 393.000 euroko isuna gora eta behera. Antza, gutxiagorako da Berrizkoa. Antza, Berrizkoak ez du garrantzirik. Antza, Berrizkoa gure-gurek egin dute, eta barkatu egin behar zaie. Antza, oker txikia baino ez da. Antza, kasu hau hobe dugu isiltzea. Antza, EITBn eta Euskadi Irratian ez dakite ezer.

Zilegi al da gehien-go absolutua duen alderdiak bere jokabide maltzurra eta okerra herriarrei ezartzea? Zein demokrazia da hori? Euskadiko Marbella ote Berriz? Noizko dimisioak? Honen aurrean, zer egin behar dugu berriztarrok?



Baserritarren eta Euskal Herriko basoen zerbitzura

Etxebarrieta auzoa - 48215 Iurreta
Tel.: 946 205 187 - Faxe: 946 205 194